

2002ko uztaila

7. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria



ANDER MANTEROLA

**25 urte
Labayru
Ikastegian
eusakararen
alde lanean**

Athletic - Udako jaiak - Arku tiroa - Mariasun Abona - Lantegi Batuak

LEZAMAKO JAIK GORA ANDRA MARI !!!

PARTE HARTU GURE JAIETAN

JAIK EUSKERAZ BIZI!!!



TADERNA - JATETXEA

ESTANCO DAÑOBEITIA
VICTOR DAÑOBEITIA GUEREDIAGA

Tel.: 94 455 62 65
94 455 65 34

LEZAMA
(Bizkaia)

DAÑOBEITIA JANARI DENDA

ZERBITZUA ETA KALITATEA

Aretxalde, 62
Tel.: 94 455 50 47

48196 LEZAMA

GORA KURTZEKO JAIK!!

FMC Foret, S. A.

Zamudioko Fabrika
San Martin auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 66 - 55
Fax: (94) 452 11 46

FMC foret 

AVRNETX E.S.A.

MAKINTZARIEN SALMENTA ETA KONTINGENTIA
SEKABARITZA - LOREZABITZA

ZERBITZUA ETA KALITATEA

Aretxalde, 27
Tel.: 94 455 50 47
Fax: 94 455 51 37
48196 LEZAMA (Bizkaia)

Aretxalde, 27
Tel.: 94 455 50 47
Fax: 94 455 51 37
48196 LEZAMA

Lezama Janari Denda

ORRO PASA LEZAMAKO JAIETAN!!!

Zamudio (Bizkaia)
Tel.: 94 452 00 66 - 55



Pentsu naturalak

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
Tel.: 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Fax: 94 455 60 16

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

DEPRESINOA

Joan dan lorailean ospatu dira euskaltzaleontzat hain maitagarriak diran jaietarikoz batzuk, Herri Urrats eta Ibilaldia, hain zuzen be. Bagilean egin diran Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaia eta Araba Euskaraz be loraldi berean sartu gura neukez, baita aurreragoko Kilometroak eta Nafarroa Oinez be. Udabarriko/udagoieneko lora ederrak dira, duda barik. Eta ni, halango natur- (giza-)prozesu ederraren aurrean pozik egon beharrean, bestelango depresino antzeko prozesuan sartuta nago

Jarri dot martxan Freud-ek asmatu eban ideien asoziazio librea deritxon teknikea eta gorago aitatu dodazen lore-sailetara eta inguruetara zuzendu dot pentsamenduaren orratza. Eta bata bestearen atzetik arrapaladan hasi dira irudiak etorten, batzuk gozoak eta atseginak, beste asko tristeak eta indartsuak. Eta bueltaka eta bueltaka... klink!, irudi bat datort burura ukondoak astinduz bultzaka-bultzaka iledaren aurrean jarri gurean:

Senperetik etxerantzean, Bidasoako Bera herrian, gozoki-denda baten aurretik pasatu gara; multzoaren automatismoak esaten deust hamabost bat ume eta nerabe dagozela, batzuk barruan gozokiak erosten eta gehienak kanpoko espaloian.

Eta, aibadios!!! Euren artean dandanak euskeraz berba egiten! Euren herrian dagoz, ez dira gure moduan Senperetik etorri, domeka arrastia da, kalean dagoz eta ez eskolan, ez dago nagusirik edo heldurik eurekaz, Sanzcho XXI Bururandidenavarraydeespaña eta Frenando Artzapezpizkuiluminatuaren herrialdean bizi dira, egunero!. Ez dot ezer ulertuten! Eta Euskal Herrian ume batzuk euskeraz entzuteak harritu egiten nau! Ez dot ezer ulertuten!

Berakoa, geldione bat izan da, flash bat, amets bat?, irudi delirantea? Baina ni Lezaman bizi naz; Erletxetik sartuta "herri euskalduna" kartel pare bategaz ongietorria emoten dauen Txorierrin bizi naz; tren

txiki batek, minutu gitxi barru Euskaltzaindiaren egoitza eta txorien ibarra lotu egiten dauan inguruan bizi naz; Egi, Segi, edo Petrategiren herrialdean bizi naz...

Eta gure umeak, gehienetan, euren artean, errekreoan, plazan olgetan... espainolean berba egiten entzuten dodaz. Eta Arrekikili-ren inguruan, edo Zorizketan-en inguruan edo Lagatzu-ren inguruan ez dot neska-mutil gazterik ez neraberik ikusten.

Ez dot ezer ulertuten! Depresinoak neurona guztiak blokeatu egin deustaz. Behar dot-eta, esaistazue mesedez, ezagututen badozue, psikiatra on bat!, edo psikolinguista on bat!, edo psiko-soziopolitiko-linguista on bat!, edo psikoerreostia on bat!. Edo..., hasikerako lorakaz akordatur, nekazal-injenieru on bat.

Depresinoagaz, Fernando Olabarrieta (EHU-ko irakaslea).



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorizketan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren,
Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Iñigo
Hernani, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia,
Amagoia Guezuraga, Asier Oruetxebarria.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Belen Gana, Oihana Astobieta,
Fernando Olabarrieta, Puri Martinez, Lourdes
Lasuen, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

-Eritxia.....	3
-Laburrak eta albisteak.....	4
-Erreportajea	
Labayru ikastetxea.....	8
-Zer deritzozu.....	11
-Laburrak eta albisteak.....	12
-Athletic-eko Plan Zuzentzailea.....	14
-Larrabetzuko jaiak.....	16
-Lezamako jaiak.....	18
-Arku tiroa.....	20
-Baserri mundua.....	22
-Teknologia.....	23
-Mariasun Abona.....	24
-Lantegi Batuak.....	26
-Sukaldaritza.....	28
-Denbora pasa.....	29
-Agenda.....	30

JAIK ETA GAZTEAK

Aurten ere, uda goibel honetan, txorieritarrok, geuk guztiok, gazte jator bat galdu dugu Mungiako jaien itzuleran. Galera handia bada gu guztiontzat, zer ez ote da izango lagun eta familiakoentzat! Honelako ezbeharren aurrean denok berba barik gelditzen gara, mutu, triste, ezer egin ezinik. Honela bada, Aikor-etik gure doluminik bizienak eman gura dizkiegu familiakoei.

Hala ere, aipatu beharra dago hau bezalako gertaera tamalgarrien aurrean sarri entzuten dugula gazteen aurkako hainbat berba: jaietara doazenean berandu irteten eta, beraz, halabeharrez berandu itzultzen direla etxera, asko edaten dutela, zentzubako samarrak direla,...

Baina, bestalde, jakin badakigu gaztea izatea eta agureen antzera portatzea ezinezkoa dela; baita ere gaurko bizimodu honetan gauez irtetea, orduan baitago gazteentzako giroa, ez dela arraroa, eta,

azkenik, jaietan ibiltzea eta zeozer edatea denok egiten dugula... Orduan? Orduan gazteak ez dira inolaz ere errudun. Gazteak gazte dira eta bizi nahi dute. Gazteak, oro har, bihotzez garbiak dira, euren akatsekin baina garbiak. Kontua ez da hori, kontua, beraz, errepidea da.

Kontuak honela, eta errealitate hauek aztertutakoan, proposamen xume baina, gure ustez, eraginkor bat luzatu nahi dugu: udako jaietan gure Txorierriko Mankomunitateak autobus txiki bat jar

dezala Txorierriko herri guztietatik jaietara eta alderantziz, gau osoa bueltaka. Garestia izango da agian, garestiago, ordea, bizitza bat. Guraso asko prest geundekete zati bat ordaintzeko eta baita prest ere Mankomunitateak, gure zergen diruarekin, beste zatia ordain dezan. Gurasook lasaia egingo genuke lo, ez genuke ibili beharko kotxeekin bueltaka eta gazteak modu seguruagoan ibiliko lirateke. Hau ez da proposamenik onena izango baina, besterik ezean, ona delakoan gaude. Gazteek hau eta gehiago ere merezi dute!



COPISTERÍAS PROPLANOS



- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRENTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- **SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.**
- **RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO**

URDULIZ
Edificio Mecánica de la Peña
TEL. 94.676.91.45

URDULIZ ALMACEN
Igeltzera, 6 1ª Planta D
TEL. 94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERI, 20 LOCAL
TEL. 94.453.57.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.eukalnet.net

PADDLEAN JOKATZEKO AUKEREA DAUKIE LOIUKOEK, EGIN BARRI DABEZAN PISTA BARRIEI ESKER

Loiuko herrikoek paddlean jokatzeko aukera ederra izango dabe aurrerantzean, herrian egin barri dabazan pista barriei esker. Udaletxearen ondoan ipini dabez, herrikoek eginiko eskaereari erantzuna emoteko.

Udalgarbi saria emon eutson Loiuko Udalarai Aldundiak orain gitxi. Sariaren bidez Bilbao Bizkaia Kutzak emondako interesik bako kreditua, hain zuzen be, Loiun paddle pista barri horreek egiteko preminazkoa izan dan diruaren zati bat ordaintzeko erabili dau Udalak.

Pista biok egiteko aurrekontu osoa 160.000 euro ingurukoa izan da. Udaletxe

ondoan egin dabez kirol instalazino barriak, Zabaloetxen. Izan be, inguru horretan dagozan tenis pisten ondoan ipini dabez paddlean jokatzeko pista barriak.

Pista bakotzak 10 x 20 metroko neurria dauka. Beraz, danetara 400 metro koadroko eremua erabili dabe proiektua egiteko.



ZORRIZKETAN-EK ANDRA MARI JAIE-TARAKO ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

Lezamako euskara elkarte honek antolatuta, Musikaldia egingo da Andra Mari egunaren bezperan, irailak 7, goizeko hamabi eta erdietan, Udaletxeko kultur aretoan. Ekitaldi honetan, Lezamako Musikari Gazteak, Lezamako Abesbatzak eta Larrabetzuko Kamara Orkestrak hartu-

ko dute parte. Horretaz gainera, egun bereborean, Zorritzketan-ek Andra Mari abestiaren grabaketa berezi bat aurkeztuko du.

Bestalde, irailaren 8an herri bazkaria izango da Lezamako pilotalekuan, musika eta jai giro ezin hobean!

Gazte Egunaren bosgarren edizioa ospatuko du abuztuaren 3an Larrabetzuko Gazte Asanbleak

Larrabetzuko Gazte Asanbleak eta Hori bai! gaztetxeak Gazte Eguna antolatu dute beste behin ere, abuztuaren 3rako. Urtero bezala, egun osoko ekintzez gainera, kontzertua egingo dute herriko plazan. Oraingo honetan E.H. Sukarra eta La Polla musika taldeak arituko dira entzuleen gozamenerako. Eguneakoari dagokionez, ordea, herri olinpiadak eta bazkaria izango dira ekimen nagusiak.

Loiuko aireportuak jasotzen dituen hegaldien kopuruak behera egin du

Loiuko aireportuaren trafikoa nabarmen egin du behera azken hilabeteotan, bertako arduradunen arabera. Instalazio berriak zabaldu zirenetik hona nahikoa handia izan da hegaldien murrizketa. Joera orokorra bada ere, hegazkin elkarteetako buruak arduratuta daude eta, udari begira, eskaintza bereziak kaleratu dituzte, Loiutik ateratzen diren hegaldiak bezeroz betetzeko.

Astialdirako gun ebarria Loiun

Orube handia atundu dabe, eta bertan 700 metro koadroko berdegunea, 1.100 metro koadroko oinezkoentzako gun e, 100 metroko luzerea daukan oinezkoentzako bidea eta aparketako 16 leku egin dabez, azken horreek 200 metro koadroko eremuan. Uriko altzari barriak be ez dira faltako Aiartzua auzoan inauguratetako plazan eta inguru barri osoan. Pasealekuan lau banku ipiniko dabez, eta ganera hiru paperontzi, kaleko 3 argi eta iturri bat be badagoz

Aiartzako plaza barria eta inguru osoa atontzeko proiektuak 60.072 euroko aurrekontua izan dau. Obrea Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailaren laguntzeagaz ordaindu dabe. Izan be, Aldundiak aurrekontuaren %25 inguru ordaindu dau.



CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Ero askotako pintxoak - Plater konbinatuak
3000/lekuak orokor

Torres Kalea, 9
(Bilbo TAMUDIN (Bizkaia)) Tel.: 94 454 26 75

San Juan Hartz Klinika



- Implantatu eta kirurgia
- Odontologia orokorra eta maxilarra
- Heriotz osteko
- Periodontia
- Txanpon berrak

ANUNTU TXAKTELAK
Adrean Ouzo, Bilbo (Bizkaia) 48011

Alfonso Arana Korta, 1 - Zentro zaharra
Tel.: 94 156 17 80 - 94 156 17 81

CAFETERIA
iA Zi

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA "OSO KEZKATUTA"

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua "oso kezkatuta" agertu da, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) euskarazko komunikabideentzako diru laguntzak jaisteko asmoa dela eta. Izan ere, EAEko Aldizkari Ofizialaren bitartez jakin denez, exekutibo autonomikoko Kultura Sailak %8 (300.000 euro) jaitsiko ditu diru laguntza horiek.

Kontseiluaren iritziz, komunikabideak "funtsezkoak" dira euskararen normalizazio prozesuan. Azaldu duenez, "Hala onartu izan du Eusko Jaurlaritzak berak ere.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian, esate baterako, "estrategikotzat" jo zuen arlo hori, eta komunikabideei lagundu beharra nabarmendu zuen. Orduan azaldutako asmoa ez dator bat azken egunotan iragarritako jaitsierarekin".

Erakunde honen iritziz, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako behar diren aukerak bermatu behar dizkiete administrazio publikoek, "eta komunikabideek berebiziko garrantzia dute zeregin horretan".

Adierazi dutenez, "euskarazko komunikabideek ahulezia nabarmenak daukate oraindik, eta premia-premiazkoak dituzte diru laguntza publikoak". Horregatik guztiagatik, Kultura Sailak "atzera egin" eta "diru laguntzen murrizketa bertan behera" utziko dituela espero du Kontseiluak.

MADRAZOK BABES OFIZIALEKO 80 ETXE INAUGURAU DAUZ DERIOKO BESAIDE PLAZAN

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak, Javier Madrazok, babes ofizialeko 80 etxebizitza inaugurau ebazan, pasadan uztailak 24an, Derioko Besaide plazan, Aldekoaneko gunean.

Etxe guzti horreetatik, ganera, erdiak sozialak dira. Etxe barriok 57 eta 86 metro koadro artekoak dira, eta bi, ganera, mogitzeko zailtasun larriak daukiezan pertsonentzat gorde dabe.

Beste alde batetik, etxe sozialei jagokenean, prezioak 44.025 eta 55.752 euro artekoak dira; eta babes ofizialeko etxeen prezioak, barriz, 63.395 eta 72.450 euro artean dagoz. Etxe guztiok, ganera, sukaldeko tresna guztiakaz atonduta dagoz.

Visesa alkarte publikoak eregi dauz Derioko babes ofizialeko etxeak. Ekitaldian emondako datuen arabera, alkarte publikoak beste 886 etxe eregiten dabil gaur egun Bizkai osoan: 536 Bilbon, 112 Erandion, 112 Leioan, 72 Muskizen eta 54 etxe Sopuertan. Horrezaz ganera, beste 335 etxe barri egiteko egitasmoa daukie, Sopuertan eta Bilbon besteak beste.



Restaurante

SAN ISIDRO

Kantu gutxiak

- Lantze erakundeak
- Zantzuak
- Zantzuak
- Zantzuak

ESKUNTZAK, BATAKAK, JAUNARTZEAK

Teléfono: 94 451 11 18

Mugaila: Derio, n. 25

48100

CENTRO MASAJE

LASAI

Terapias:

- Ultrasonido (electromagnético)
- Mercurio
- Osteopatía
- Masaje
- Gimnasia terapéutica

Clínica especializada en:

- Causa de lesiones (accidentes)
- Lesiones de la zona
- Lesiones deportivas
- Particular

C/ Vitoria, 4 (Derio)

9451 11 18

9451 11 18

9451 11 18

9451 11 18

Janix

ONETAKOAK - ONETAKOAK

Gemikako Arbola Etorbidea, 2

(aurreru Goiko Kalea)

Tfnoa.: 94 454 20 13

48160 DERIO (Bizkai)

DERIO FRUTADENDA

Sallube, 8

Tfnoa: 605 77 12 62

DERIO

Jaione Elona

Aspuru Auzua

Alfanz

686 45 40 70

Tfno. 94 453 1807

Fax 94 453 6027

Mining, 6. floor

48150 Sanfiza-Bizkaia

LARRABETZUKO ESTANKOA

Tabakoa, prentsa, loteriak, kintak...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU

Tfnoa: 944 558 110

DATORREN KURTSORAKO MATRIKULEA ZABALIK BERTOKON

Asko itxeron ostean, azkenean heldu jaku ude, baie Zamudioko BERTOKO Soinu Tresnen Elkarteak ez deu oporrik hartuko. Izen be,urtero lez, ude osoan jo ta jo ibiliko gara jairik jai, bai Txorierrin bertan, eta baite ingiruko herrietan be, horretxeaitik aupada handi bet BERTOKOko musikari guzti-guztioi! Igezko kur-tsoan zehar 50 saio ingiru egin genduzen eta aurten , seguruenik, askoz be gehiago egin doguz, ia holan segitan dogun!

Testua: Bertoko Soinu Tresnen Elkarte.

Akaba barri dan kurtsoan Txorierritik eta Mungialdetik etorritako 63ren bat ikas-le izen gara guztire. Adin guztietakoak, 5/6 urtetik 45 urtera bitartekoak. Ikasle barri partidea apunta jakun eta datorren kurtso-an beste horrenbeste edo gehiago apun-tatea itxeroten dogu. Aurten trikitixako, panderoko eta txalapartako klaseak emon doguz irekasle on askoakaz. Panderoko ire-kaslea Edurtzeta Ania da Ene Bada! musika taldeko kidea, trikitrixakoa Maurizia Musika Eskolako Arkaitz Allur da eta txalapartakoak eskola bereko Iker eta David direz.

Garai baten alboka eta dultzaina be emoten ziren eta ondino badago modue, ia baten bat animetan dan datorren urterako eta trikitrixagaz batera gure alboka zaharraren eta dultzaina zorrotzaren doinuek entzu-ten doguzan Zamudion eta Txorierrin osoan.

Matrikulea zabalik deku eta apunta gure deuenak honeetara telefonoetara deitutea baino ez deko: 615749570 / 615749568

ESKERRIK ASKO

Hiru hilabete pasa dizen arren eta lehenago aukerarik euki ez dogunez, arti-kulu hau aprobetxa gure geunke eskerrak emoteko apirilaren 21ean Zamudion ospatu gendun Euskal Herriko Trikitixa egunean parte hartu zenduen txorierritar guztiori eta batez be antolakuntza beha-rretan ibili zentzienori. ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ!

Beste barik, laster ikusiko gara ltoiz talde-ak esaten zeuelez "edozein herriko jaixetan".



Inok gure prezioen barri jakin gure baleko hemen dekozuez hileroko kuotak zenbetekoak dizen:

Panderoa	25 euro
Alboka	30,05 euro
Dultzaina	30,05 euro
Txalaparta	25 euro
Trikitixa	34,25 euro

hormigones
de zamudio

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kamiol ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkara

Torrelerrogaiti ind., 7-9 • 48170 Zamudio - Bizkaia
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65
E-mail: hormizamudio@jazzfree.com

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tafferi kalea, 5 ZAMUDIO
Tfn: 94 452 12 73

LEIRE BEGOÑA
ILEAPAINDEGIA
UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA


MUNGIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

CANTEROS TRIKUHARRI
COLOCACION Y TALLA DE
PIEDRA NATURAL
RESTAURACION DE CASERIOS

Unbetxiki, 3
Tfno. mobil: 670 51 80 98
48180 LOIU (Bizkaia)

LABAYRU IKASTEGIaren

25. urteurrena



Labayruko liburutegian ehundaka urte dituzten liburuak daude

Ander Manterola
Labayruren sortzaileetari-ko bat izan zen orain dela 25 urte. Harrezkero, bertako kolaboratzaile fina da. Zeanuriko abade honek urte asko eman ditu Txorierrin euskararen alde lanean. Labayruren sorreratik mende laurdena igaro ondoren, eginda-koaz “harro” agertzen zaigu, “oraindik egiteko asko dagoela” aitortu arren.

Testua eta argazkiak: Maite Aranburu

Noiz sortu zen Labayru ikastegi?

Legez, 1977an sortu zen erakunde moduan, baina bidez 1970. urtean hasi zen lanean. Urte horretan hasi zen ikastaroa, euskal biblioteka... Aurrerago, 1972an, On Jose Migel Barandiaran etorri zen Ataundik, guri etnografia edo kulturazko klase batzuk ematen... Hala hasi zen ikastegiko ibilbidea.

Zein da erakunde honen helburu nagusia?

Labayruren helburua da Euskal Herriaren kultur balioak garatu eta eguneratzea eta zerbitzuak eskaintzea. Elizbarrutiko ikastegi hau eratzeko aktan bertan adierazten da gure elizbarrutiaren eginbeharretariko bat dela euskal kulturaren berezko balioak aintzat hartzea eta aurrera eramatea. Hain aberatsa eta bakarra den kultura hau ondo preziatzen dela erakusteko gogoia ere aipatzen da bertan, baita kultura hau laguntzarik handienaren premian dagoela gogorarazi ere.

Zelako beharrianak sumatu zenituzten Labayru sortzeko?

Irudi baten bidez azalduko dut. Antzinako historia batek dioen bezala, Australiako eremuetan badira hazi batzuk, 30 urtean lurpean erne barik euriari itxaroten egoten direnak. Euria datorrenean, berriz, erne egiten dira. Gure haziak ere halakoxeak dira. Beharbada orain 40 urte edo gerra aurretik ereindakoak ziren. Guk gorde egin genituen eta, askatasuna berreskuratu zenean, erne egin ziren. Horren zergatia azaltzen zaila da. Esate baterako, euskalduntze arloan beharrian handia zegoen, Francoren denboran

“Labayruren helburua da Euskal Herriaren kultur balioak garatu eta eguneratzea eta zerbitzuak eskaintzea”

helduek ez baitzuten euskaraz ikasteko modurik, etxetik kanpo behinik behin.

Mojekin, abadeekin eta irakaskuntzan zebilen eliza inguruko jendearekin gauza bera gertatzen zela ikusi genuen eta horrela sortu zen lehenengo udako ikastaroa. Hura izan zen gure lehenengo ahalegina.

Nortzuk izan zineten ekimen honen bultzatzaileak?

Gaur egungo gotzain Karmelo Etxenagusia, Mikel Zarate eta hirurok. Haiek izan ziren lehenengoko ikastaroko irakasleak.

Horiez gainera, Derioko Seminarioko irakasleek ere hartu zuten parte. Denbora aurrera joan ahala, gero eta irakasle gehiago hasi zen gure ikastaroetara hurbiltzen. Ikastolak garai hartan hasi ziren martxan jartzen.

Lehenengoko ikastaroetara ehun eta hogeita hamar lagun inguru etortzen ziren; 80ko hamarkadan, aldiz, 800 lagun.



70eko hamarkadako euskara ikastaro horiek gaur egungo euskaltegien aitzindariak direla esan daiteke?

Bai. Gainera, kontutan izan behar da, garai hartan ez zegoela HABErik, ez euskaltegirik, ezta helduak euskalduntzeko medio askorik ere. Horregatik izan zuen gure ikastaroak hainbesteko arrakasta Bizkaian.

Zein da euskara batuaren eta Labayruren arteko erlazioa?

Gu inoiz ez gara egon euskara batuaren kontra. Baina guk hasieratik ikusi izan dugu ezin dugula baztertu ahozko euskara, ezin dugula baztertu dakiguna. Geure ustez, dakigunetik ez dakigunera joan behar dugu. Eta zelan egiten da hori? Dakiguna gehiago ikasiz. Horrela heltzen gara ez dakigunera.

Ez dugu saltorik egin behar, bizkaieran sakondu egin behar dugu, ezen gure ustea zen —eta gaur egun ere hala da— bizkaiera eskolatuan euskara osoaren % 90 dagoela. Hau da, ikaslea bizkaieraz ondo eskolatzen bada, beste euskalki guztiak bereganatuko ditu.

Gaur egun Labayruren lanik garrantzitsuenetariko bat Etnikerren Atlas Etnografikoa da. Zelan sortu zen?

Etniker Barandiaranek sortu zuen. Berak eman zigun Euskal Atlasa eratzeko beharra.

Zortzi bat urtean hilero etortzen zen gugana, eta berak emandako 1.000 ite-

meko galdeketaekin eta metodologiarekin hasi ginen lanean.

Lehengo taldea haren inguruan hasi zen. Egun baten elikadurari buruzko galderak egiten genituen, beste egun baten artzaintzari buruzkoak, formalismoari buruzkoak... Aurrerago haren lanari jarraitu genion, berak hasitakoa hedatuz. Geroago Etniker Bizkaia aldizkaria sortu genuen eta ondoren Euskal Herriko Etniker guztien federazioa eratu genuen. Denok daukagu helburu berbera: Euskal Herriko Atlasa egitea.

Atlasa Euskal Herriko ohiturak ez galtzeko tresna bat da?

Ohiturak ez galtzeko baino, batzeko modu bat bezala ikusten dugu. Kontutan izan behar da Euskal Herria eten gabe dagoela aldatzeko prozesuan. Azkeneko 40 urte honetan Euskadi gehiago aldatu da azkeneko 400 urteetan baino. Zentzu guztietan, gainera: pentsatzeko era, lan egiteko modua, erlazioak, autarkia... Beraz, Euskadik sortu duen kultura batu egin nahi dugu.

Etnikerrek ez du etnografia elementalik egin nahi, etnografia sistematikoan oinarritzen da. Etnografia elementalak, esaterako, etxe bat zelan dagoen eratuta aztertzen du. Sistematikoak, aldiz, etxe hori haren ingurumarian aztertzen du, produkzio bide legez, baita bertan bizi direnak ere, senitartekoak zelan konponetzen diren... Hau da, sistema osoa hartzen du kontuan, ez elementu bakar bat. Horrek diziplina handia eskatzen digu geure lanean.

Zenbat zenbaki kaleratu dituzue orain arte?

Bost ale kaleratu ditugu eta hamalau argitaratzeko asmoa daukagu. Seigarren zenbakia, Medikuntza eta albaitaritza herrikoia deritzona, urte amaieran argitaratuko da.

Zergatik daude erdaraz idatzita?

Ahalik eta jende gehiagorengana heltzeko.

ANDER MANTEROLA

Zelan etorri zinen Zeanuritik hona?

Ni abade barri egin nintzenean, Comillaseko Unibertsitatera bidali ninduten ikasten. Gaixorik nengoen eta handik irten beharrean nengoenez, Zamudiora joan nintzen. Zentzu guztietan, nire bizitzako bost urterik zoriontsuenak izan ziren! Bertan, abade moduan eta Seminarioan irakasle moduan ibili nintzen, matematika, zientzia naturalak, erlijioa... irakasten. Zamudiotik Ludora hiru urtez joan nintzen, eta handik, berriz, Belgikako Lobainako Unibertsitatera teologia ikastera. Handik laster deitu zidaten Seminario Nagusira joateko. Beraz, 1968az geroztik nago Derioko Seminarioan lanean. Lehenengo teologia irakasle izan nintzen, liburuzain... Horrela, bada, sartu nintzen ikastaroak egiten, bibliotekan, Etnikerren...

Zelako ezberdintasunak ikusten dituzu lehengo eta oraingo Zamudioren artean?

Garai hartan Flexis izeneko fabrika txiki bat baino ez zegoen. Zamudion jendea oso zabala zen, etxeetan oso harrera ona egiten zizuten, txarribodetara gonbidatzen zintuzten, goizetan bendaja Bilbora eramaten zuten lehengo trenean... Oraindik gogoan daukat goizeko bost eta erdietako tren haren txistua! Zamudioko futbol ekipoko sekretarioa izatera heldu nintzen! Benetan maite dut Zamudio.


Jendeak oraindik gogoratzen ditu zure apaiz denborak Zamudion...

Egia da! Askotan, gertatu izan zait kaletik noala norbaitek Don Andres! deitzea, zelan ez, zamudioztar batek! Oso maitagarria da Zamudio eta, orokorrean, Txorierriko jendea.

Badauka Txorierriko etnografia mailan berezitasunik?

Hizkuntza aldetik aurki ditzakegu ezberdintasun nabarmenenak. Esaterako, asau (urrun) eta paraje (hurbil) dira Txorierriko zonaldeetik bakarrik entzun ditzakegun hitz bi. Euskal Herrian berezitasun handiak egon dira, baina hartu-emanak ere nabarmenak izan dira, bailaretan gehienbat, berezitasunak batuz. Zentzu horretan, esan daiteke Euskal Herria herri bateratua dela.





Hor ez ote dago kontraesan bat?

Erdaraz daude idatzita Euskal Herri osoak irakurtzeko aukera izan dezan. Gainera, nahiz eta erabat penagarria izan, Euskadi osoan ez da euskaraz egiten. Nafarroako zonalde askotan ez da euskaraz egiten, ezta Araba osoan ere. Iparraldeko lekuri gehienetan frantsesez egiten dute... Jende gehiagoagana heltzeko modu bat besterik ez da.

Atlasaz gainera, Euskal Bibliotekan badituzue hainbat liburu.

Euskal Herriari buruzko 60.000 liburu dauzkagu, era askotakoak. Gehienak euskaraz daude idatzita, baina badauzkagu Euskal Herriari buruz beste hizkuntza batzuetan idatzitako hainbat idazki ere. Historia, geografia, biografiak... Gainera, edonor etor daiteke gure biblioteka kontsultatzen. Beste alde batetik, Labayruk 225 liburutik gora argitaratu ditu.

Zuen 25. urteurrena dela eta, hainbat hitzaldi eta ekitaldi antolatu zenituzten ekainean. Zelako balorazioa egingo zenuke ekimen horiei buruz?

Hizlariak gure erakundeak izaten dituen arazoak argitzera etorri ziren. Esaterako, Poupard kardinala etorri zen, baita Porta hizlari famatua ere, gure moduko erakunde batek Europa mailan zelako zeregina daukan esatera, hau da, ea gaur

Guk behin eta berriro esaten dugu ez dagoela euskara txarrik. Euskararik motzena egiten ez dena da, erdara!

egun guretzako lekuri badagoen edo ez. Douvert, aldiz, etnografiaren zeregina definitzeko etorri zen. Atxagaren hitzaldia saio literarioa izan zen.

Zelan erantzun zuen jendeak?

Oso erantzun ona izan genuen, bai hizlari, zein parte hartzaileen aldetik. Jendez gainezka egon zen ekitaldi aretoa.

25 urte pasa ondoren, zelan ikusten duzu euskararen bilakaera?

Ezin dut esan txarrago dagoenik, prestigio aldetik hobeto dago eta. Gaur egun euskaraz egiteak prestigioa dakar. Esparru aldetik ere, euskara unibertsitateetan sartu da, tribunaletan sartzear dago... Inoiz baino liburu eta aldizkari gehiago argitaratzen dira euskaraz... Alde horretatik ondo dago.

Guk akats bat ikusten dugu ahozko erabilera aldetik. Askok, euskaraz jakin arren, erdaraz egiten dute. Ez bakarrik erdaldunekin, baita euskaldunen artean ere. Hori oso larria da.

Zergatik uste duzu jendea oraindik ere kostatzen zaiola euskaraz egitea?

Ohituragatik eta euskarak erdararen presio handia jasaten duelako. Badaukagu euskarazko telebista bat, baina beste hamar telebista kate daude presioa egiten. Horren aurrean ez badago hizkuntza kontzientziarik... Askotan, erraztasun faltari botatzen diogu errua, baina argi dago gauza bat: zenbat eta euskara gutxiago praktikatu, orduan edukiko dugu erraztasun gutxiago, eta alderantziz. Erraztasuna erabilerarekin lortzen da.

Zertan lagundu du Labayruk euskara zabaltzen?

Jendeak euskararekiko kontzientzia hartzea lortu dugula uste dut, bai eta ahozko euskarak, hau da, betidanik erabili izan dugun euskarak prestigio gehiago hartzea ere. Euskaldun asko lotsatzen dira, uste dutelako euskara "motza" egiten dutela. Guk behin eta berriro esaten dugu ez

dagoela euskara txarrik. Euskararik motzena egiten ez dena da, erdara!

Zelan ikusten duzu Labayru hemendik 25 urtera?

Hori ez dakit! Zenbat ordainduko luketen batzuek hori jakitearren! Nik uste dut Labayrura, beste hainbat lekutara bezala, belaunaldi berriak etorriko direla, jende berria. Gauza askotan gu baino jantziago etorriko dira eta beharbada, adoretuago. Horren esperantza daukat.

Egiteko dagoen lana ikaragarria da oraindik. Guk zer edo zer lortu dugu, mailatxo bat igotzea, baina igo ahala, gehiago ikusten da, eta beharrianak, egitekoak, aukerak ere, gehiago ikusten dira.

Zeintzuk dira euskarak oraindik igo behar dituen maila horiek?

Hizkuntza mailaz gainera, kultura mailan asko igo behar duela uste dut, hau da, guk euskaraz gehiago jakin behar dugu, beste gai batzuk euskaraz ikasi.

Euskaraz ikastea, euskal kontzientzia sendotu egiten da, parekatu egiten da beste kontzientziekin. Hori izugarritzko abantaila izatera hel daiteke. Normalizazio hori norberaren barruan sortzen da eta, gutxi izan arren —ez baikara asko—, hartara heltzen bagara, nortasuna lortu behar dugu. Nortasun hori lortu behar dugu.

"Bizkaitar Argiak" izendapena

Uztailaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiak "Bizkaitar Argiak" izendapena eman zien Ander Manterola Labayru Ikastegiko zuzendariari, Karmelo Bernaola musikariari, Adrian Zelaia legegariari.

Ander Manterolak, "euskararen eremuan erakutsitako izaera ekintzaileagatik eta Labayru institutuaren sorreragatik" jaso du saria; Adrian Zelaia berriz, "bere ibilbide profesional oparoagatik eta, bereziki, Bizkaiko foru zuzenbide zibilari egindako ekarpen ordainezinagatik" eman diote izendapena, eta Karmelo Bernaolari, "XX. eta XXI. mendeetako proiektio eta garrantzi handieneko musikarietakoa izateagatik".

FOTERI TABERNA

Andra Mari Kalea, 22
Telefonoa 455 80 98

48105 LARRABETZU (Bizkaia)

**ALDIZKARIAJASO GURA DUENAK DEITU
BAINO EZ DU EGIN BEHAR**

TLFNOA: 94 452 34 47

EDO E-MAILEZ ESKATU aikortxori@yahoo.es

EZAGUTZEN DUZU LABAYRU IKASTEGIA?

**Alexander Atxutegi**

Bost urte eman nituen bertan euskera eta bestelakoak ikasten eta hobetzen. Horretaz gainera, bertan badago Atlas etnografikoa egiteaz arduratzen den ikerketa saila, liburutegia...

Dani Lopez

Bai, euskera kurtsoak ematen dituzte bertan, bizkaierakoak gehienbat.

**Bego Legarreta**

Bai, duela zenbait urte Labayrun euskera kurtso bat eman nuen. Gainera, nik dakidala, Atlas Etnografikoa ere bertan egiten dute.

Esther Olabarieta

Ez dakit zehazki zein den Ikastegiko arlorik garrantzitsuena. Jakin badakit, euskera irakasten dutela eta Derioko Seminarioan dagoela.

**Txotxe Sorarrain**

Euskerako ikastaroak ematen dituzte duela hainbat urte. Gainera, liburutegia eta ikerketa arloa ere dutelakoan nago.

Miguel Rubio

Euskerarekin zerikusia duela uste dut, gehienbat, Ikastegiaren urteurrena dela eta, komunikabideetan entzun dudanagatik.



Hiru hilabeteko katakume bat oparitzen dugu. Tigre itxurakoa, maitagarria. Tel.: 94 455 56 05.

Zaldiz ibilteko "montura" amerikarra erosiko neuke. Tel.: 94 452 10 77. Deitu 21:00etatik aurrera.

Atal hau Txorierriko merkatu txikia izango da. Ezer badaukazu saltzeko, erosteko, edo beste edozertarako, deitu eizu hona eta orri honetan argitaratuko dogu.

*Gure helbide elektronikoa
aikortxori@yahoo.es da
(telefonoa 94 452 34 47 da).*

laukitxo bat 3 euro.

BESTE ZAZPI DENDA SARTU DIRA MERKATARITZA EUSKALDUNTZEN HITZARMENEAN

Bagilean beste zazpi denda sartu ziran, Txorierriko Mankomunitateak bultzatzen dauen Merkataritza Euskalduntzen hitzarmenaren barruan: Sondikan Victor harategia; Derion, Evergreen akademia, Nagusien etxea eta Txoria kultur elkarte, eta Zamudion, Batzokia, Ana Belen ileapaindegia eta Bideo kluba. Zazpi horreezaz ganera, garagarrilean, beste bizpahiru denda gehiago sartzea espero da.



Dañobeitia janari denda



Josune janari denda

Bagilean, hitzarmenean dagozan denda eta taberna-jate-txe guztiak bisitatu ziranean, hainbat aurrerakuntza igarri ziran. Esaterako, Lezamako denda bik euskera hutsean jarri dabez fakturak eta tiketa (Dañobeitia eta Josune Zabala); Sondikan, Cesar harategiak barruko errotuluak ipini dauz elebietan; Loion, Aspaldikok zigilua eta Bernabek faktura euskara hutsean jarri dabe eta La Estacion tabernak ordutegi elebiduna.

Baina, aldaketa gehienak Derion igarri dira. Euskera hutsean, Ariam-en zigilua eta Tximeletaren fakturak jarri dira eta Karmelo harategiaren barruko errotuluak. Bi hizkuntzetan Urrutia harategiko ordutegia eta errotuluak, Arinkako ordutegia eta Ganix-en ordutegi, poltsa eta barruko errotuluak.

Aldaketa asko izan dira, baina ez hori bakarrik. Dendariek, bisita egin jakenean, 30 errotulu barri eskatu dabez: udako ordutegiak, barruko errotuluak eta abar.

Alderdi negatibo moduan esan behar da, aurren, hitzarmenean egozan denda batzuk itxi direla. Kontuan hartu behar da denden biziraupena ez dala erraza, gero eta konpetentzia gehiago dagoen arlo honetan.

Amaitzeko, dendarientzako ikastaroan parte hartu daben dendariek aitatu deuskue pozik dagozela eta datorren kurtsoan jarraitzeko asmoa daukela. Eta, horreekaz batera, beste denda bi prest azaldu dira ikastaroetan parte hartzeko.

Testua : Lourdes Lasuen

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

OSKARBI
fotografoak

IRISERKIA / FOTOGRAFIA

TAL. ERRI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: oskarbi@euskalnet.net

LIBURUDENDA / PAPERDENDA

ZAMUDIO

Cartes de calca, fi
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Santimamiko jaiak izango dira abuztuaren 16, 17 eta 18an.

Abuztuak 16, ostirala:

- 12.00etan, txupinazoa.
- 18.30etan, Gorritiren eskutik, zekorrak, ponyak....
- 20.30etan, tortila txapelketa.
- 21.00etan, sardinada.
- 20.30etan, berbena, Lisker taldearen eskutik.

Abuztuak 17, larunbata. Santimami eguna:

- 10.00etan, txistulariak.
- 12.00etan, meza izango da basilizan, Bertoko taldearen trikitixekin.
- 14.00etan, sukalki txapelketa.
- 19.30etan, gazteentzako berbena, Arizgoiti taldearen eskutik.
- 24.00etan, sorgina erretzea eta txokol latada.

Abuztuak 18, igandea. Santimamitxu,

- 12.00etan, meza basilizan.
- 12.40etan, Bertoko taldearen triki-pan dero emanaldia.
- 13.00etan, nagusientzako kopaua.

Sondikako Santa Kurtzeko jaiak Larrabarrena parkean

Irailak 13, ostirala:

- 19.00etan, kalejira, Ipar-Elaiak txistula riekín.
- 19.30etan, herri kirolak.
- 22.30etan, dantzaldia. Egan taldearekin.

Irailak 14, larunbata:

- 10.30etan, kalejira trikitixarekin.
- 11.30etan, meza santua, Kurtzeko basilizan. Ohorezko aureskua eta trikitixa.
- 12etatik 14etara eta 16etatik 19etara, haur eta gazteentzako parkea.
- 16.30etan, hiruko futbol txapelketa (C.D. Sondikak antolatuta).
- 19.30etan, dantzaldia, Gorantzaleak taldearen eskutik.
- 22.00etan, bilbainadak, Los Txikis taldearekin.
- 23.30etan, dantzaldia, Tximeleta taldearen eskutik.

Lezamako Kurtzeko jaiak, Larrondoko jaiak, San Antolin, San Bartolome...

Aikor-en hurrengo zenbakiak urten orduko, jaiakaz gozatzeko aukera ugari izango dogu nonahi. Egitarauak eskuratu ezin izan badoguz be, Lezaman irailaren 13tik 16ra bitartean Santa Kurtzek ospatuko dabez. Larrondon, aldiz, abuztuaren 30etik irailaren 1a arte jaiak izango dabez Elotxelerri auzoan. Zamudion San Antolin (Sandoni) eta San Bartolome, eta Sondikan San Roke.



Zerurena Jatetxea

Errementeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
COOPERATIVA AGRICOLA Y GANADERA (D.º ZAMUDIO-DERIO)
BARRUTIAKORTZEN ZERBITZUAK
Santi Mami auzoa, 1
Tlfno. 94 454 18 00
Fax: 94 454 13 109
48173 ZAMUDIO (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALKALDIA
Nerea Pedraza 091 371
6557 CANADITA ZAMUDIO SERIO

Tel. Buzketa: 94 454 13 109
CERBIO - DERIO
Telefonoa: 944 454 13 109
944 454 13 109

ATARRABI

Errementari, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

GELTOKI
BAR CAFETERIA

- Golekio 7 estatik azalrik
- Golekio
- Pintaketa kolorezkoak
- Enpresentzako lunch zerbitzua
- Asteburuetan pro italo

C/ ERREMENTERI, 8, 48150, SONDIKA, 944 551 185

LEKE'S JATETXEA
S.L.R.

LEKE'S
JATETXEA

Santimami, 1
Telefonoa: 944 543 894

48170 ZAMUDIO
Bizkaia

ATHLETIC CLUB-eko Plan Zuzentzailea

Lezamako kirol instalazioak 1971-72 denboraldian inauguratu ziren, Felix Oráa lehendakari zela. Bertan hiru zelai, egoitza eta aldageletako eraikuntza jarri ziren. Aurrerago, Jose Antonio Egidazu buru zela, lehengo instalazioei beste lau zelai eta kiroldegi estalia gehitu zitzaizkien.

Testua: Arantzazu Mendiguren

Lezamako hurrengo birmoldaketa 1995ean egin zen, J. M. Arrate buru zela. Orduan, aparkalekua eta sartu eta irteteko bideak egin ziren.

Gaur egun, belar naturaleko bost zelai eta belar artifizialeko zelai bat daude, arauzko neurrikoak guztiak.

Horiezaz gainera, belar artifiziala duen pabilioi estali bat dago; bertan, gimnasioa, pilotalekua, eritegia eta jokalarientzako egoitza daude.


Lezamak oinarri-futboleko bedera-tzi talde biltzen ditu: Bilbao Athletic, gazteen ohorezko maila, gazteen nazio mailako kadete talde bi, haurren talde bi eta kimuen talde bat.

Athletic Cluben sorrera herriaren historian sustraitu zen. Izan ere, kluba garai haren isla da. XIX. mendearen amaieran, Bizkaia-aren eta Ingalaterraren arteko merkataritza harremanak estuak ziren.

Horri esker, football izeneko Ingalaterrako kirol berri haren haziak kimuak ematen hasi ziren.



Hiru urte barruko instalazioak



Gaur egungo instalazioak

Euskal kirolari gazteek erabat liluraturik ekin zieten kirol xelebre hari: hamaika mutilez osaturiko koadrila bi pilotatzen baten atzetik.

Hiriko lehen futbol taldea 1898an sortu zen, Bilbao Football Club izena izan zuen, baina, handik laster, gaur egun ezagunagoa dugun Athletic Club izena hartu zuen.



BIRMOLDAKETA UGARI

Horrela sortu zen Athletic, baina sorreraz gainera, Lezamako instalazioak ere esanahi handia izan dute. Urteen buruan instalazioek birmoldaketak ugari izan dituzte. Gaur egun ere Lezamako Plan Zuzentzailea mahai gainean dago. Lehen taldeak behar dituen baliabideak eskaini gura dira plan horren bitartez. Helburua, beraz, etorkizuneko Lezama sortzea da.

Plan zuzentzailearen barruan badira kontutan hartu beharreko puntu garrantzitsu batzuk. Alde batetik, haren helburua da zonalde publikoa eta pribatua eta aparkalekuak banatzea. Lehenengo talderako, intsonorizatuta egongo den beste eraikin bat egingo da, baita beste zelaia bat ere. Ibilbide publikoa ere sortuko da; bertan taberna, jatetxea eta dendak jarriko dira. Gaur egun dagoen eraikin nagusia ere birmoldatuko da Bilbao Athletic talderako. Eraikinaren behealdean gimnasioa eta aldagelak handituko dira. Gainera, prentsarako beste eremu bat jarriko da itxaron gela batekin; beste alde batetik, harrera-areto bat egingo da publikoarentzat.

Fisioterapia eta medikuen alderdia ere aldatuko da. Ikasgelak eta psikologo lanetarako zonaldea ere egingo dira.

Plan zuzentzaile hori hurrengo bi edo hiru urteetan burutzeko asmoa dute. Epe laburrera, eraikin nagusiko lanak hasi dira eta uste da uda honetan amaituko dela Piru Gaintza eraikina.



Hasiak dira instalazioen berrikuntzak



**hotela
jattetxea
aretxarte**

Teknologi Parkoa - Fraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



ERFKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
expresen bezerriak, jauntziak, familien bezerriak
Artcaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefono: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



**HOTEL
JATETXEA**

KRTEK-EROTE
Other Gogamandua
Artcaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefono: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29
E-mail: hotel_jatetxea@aretxarte.com

GAMINIZ

RESTAURANTE



AITOR ELIZEGI

Zamudio Parko Teknologiko Tel: 94 431 70 25
Horma 212 E-mail: gaminiz@euskaltel.net
48170 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizalea.com

LARRABETZUKO JAIK

Herrikoiak eta parte hartzeko modukoak

Testua eta argazkiak: Patxi Gaztelumendi

Abuztuaren 15a Andra Mari eguna da, eta egun horren bueltan ospatzen dira urtero Larrebetzun uriko jaiak. Iaz uriaren 625. urteurrena zela eta ospakizun bereziak egon ziren, aurten be Kukubiltxok 25 urte betetzen dituelako izango dira bereziak... beti dago eta aitzakiaren bat.

Aspaldi, duela 25 urte baino lehenago hasi ziren ospatzen Larrabetzuko Andra Mari jaiak, modu herrikoiei batean. Aurten Bilboko Aste Nagusiak 25 urte beteko ditu, baina herriko jendeak gogoratzen duenez Larrabetzun urte batzuk lehenago

hasi ziren jaiak modu herrikoiei eta parte-hartzaile batean antolatzen.

Urte batzutan gainera, oso ezagunak izan ziren Andra Mari egunez egiten ziren karrozak, eta herriko kuadrila askok lan

asko egin ostean, bere karroza erakusten zuen herrian zehar, kale bazterretan ehundaka ziren karrozak ikusten batzen zirenak.

Aspaldiko kontuak dira horrek, bai. Jai giroa ere, herri txikietan orain bizi dana baino handiagoa zen, izan be, herri txikietako jaiak galtzorian daude inguruotan... aurrekontu eta partehartze eskasaren erruz. Azken urteotan, Larrabetzuko jaietan eguneko ekitaldietan gorakada bat ikusten da partehartzean, eta herriko jendeak, batez be, oso ondo pasatzen ei du jaietan, eta hori da printzipala ezta? Sortu dira gainera, urtetik urtera gero eta arrakasta gehiago daukaten ekitaldi batzuk eta gaurkoan horiei jarriko diegu arreta apur bat.

Aipagarria da aurten, Kukubiltxok egingo duela jaien hasiera. 25 urte dira sortu zirela, eta pregoialari lana egokitu zaie Kukubiltxokoei, egia esan orain arte ez da inoiz pregoirik egon Andra Marietan, baina momentuak merezi du.



EROSLE

ONDO PASA
JAIETAN

LARRABETZUKO EROSLE. Herrietan, 2-3. Larrebetzu. Tel: 94 455 84 33

KRIKETA

LARRABETZU

Tel: 94 455 84 33

COMICITAS - TROFEO - CONCURSOS - PREMIOS

en el barrio del Trofeo

GARRAIOLARIA

Miguel Angel Lekun

Avenida M. 13

LARRABETZU

Tel: 94 455 80 20

HARATEGIA

J. ELORRIAGA

CARNICERIA

J. ELORRIAGA

Tel: 94 455 84 33

LARRABETZU (BIZKAYA)

Servicio a domicilio



Kontzertua be, aurreko urteotakoa baino ezagunagoa izango da gainera, Mungiako PI-LT etorriko da eta.

Andra Mari eguna beti izaten da handia, eta aurten be asto karrera izango da egun honetako izarra. Kale nagusiko obra madarikatuak direla eta, lasterketa frontoiko kolean izango da, eta bertsolariak be han inguruan izango dira. Aurten Jon Maia eta iaz gaixorik jarritako Xabier Amuriza arituko dira nor baino nor bertsotan. Gauean, urterokoa dugun Tapia eta

Leturiaren emanaldia, Patxi Perez dantzariak lagunduta. Hor be arrakasta ziurtatuta, eta plaza bete dantzari.

Umeen eguna

Urtero moduan, abuztuaren 16a, umeen eguna izaten da gurean. Goizean goiz hasita, kalera urten eta jai giroa izaten da handi eta txikientzat. Handiak: erraldoi eta kilikiak. Kalez kale dantzan.

Gero jolasak, aurten be Kulkigaz. Bazkaria urtero moduan eta ostean ume-

entzako antzerkia. Iaz, azken orduan umeen antzerkia kendu egin zen programatik -diru kontuak

zirela aitzakia- baina aurten berriro lortu da umeentzako kalitatezko antzerkia egotea, eta aurten be Hankagorri taldea egongo da herriko plazan. Berbena Etzakit talde ezagunaren esku egongo da, eta Trapu Zaharra antzerki taldeak barriro be gauerdian bere sorpresak ekarriko ditu herrira. Jaiak dantzan amaituko ditugu, beti lez.





**C.D. HIPICO
LOS AMIGOS DEL CABALLO
DE LEZAMA**

Garaioitza, 184 - Tel: 94 455 65 11
LEZAMA (Bizkaia)

C.I.F. G95056107

**IBILALDIAK ZALDIZ
APOPILOTZA
MAILA GUZTIENTAKO IKASTAROAK
HITZORDUA AURRETIK**



GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioitza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

ZORRIZKETAN

LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

IRAILAREN 7an

Egurdiko 12:00etan musikaldia (herriko musika-
ri gazteak, Lezamako abes-
batza eta jaietarako egin
den abestiaren aurkezpena)

Egurdiko 14:30etan Herri bazkaria



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

**TORREKO
TXAKOLINA**



COSECHEROS DESDE 1883
José Antonio Dañobeitia
Pedro María Dañobeitia
Bodega

CASERIO TORRE
Barrio Aretxalde
48196 LEZAMA
Bizkaia

☎ 94 473 15 34
☎ 94 678 05 20
☎ 94 455 62 39



OKINDECIA-DASTALEKUA

Aretxalde, 64
Tel.: 94 455 50 36 48196 LEZAMA

Magalararte
Txakolina

Javis 94 452 14 31
Irudi: 94 455 65 06

100% Txakolina Dastalekua eta OKIKETA
Produktuak de Gurea
Bisakaiko Txakolina

TXAKOLINA

LUISABRE



11% Vol.

75 cl.

Garaioitza, 87
Tel.: 94 455 65 11
070 87 37 36

Bisakaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Nuestro Chubasco Garabichak biltza, produktu ita biltza
LEZAMA-SPAIN
N.R.E. 48/4059/00

**MUEBLES
Artezale
DECORACION
Clásico y Rústico**

Sanlito Urreiriz mazon. 47 - Tel.: Faxis: 944 570 052
09460 GALDARAO
Garaioitza auzoa, 49 86 - Tel.: Faxis: 944 454 181
48196 LEZAMA

Artezale

e-mail: artezale@edun.com

Etor Dañobeitia, Lander Elorriaga eta Igor Arabiourrutia

Lezamako Jai Batzordeko kideak

Lezamako jaiak gainean doguzala eta, bertaraino joan gara Etor Dañobeitia, Lander Elorriaga eta Igor Arabiourrutia berbalditxo bat egiten. Hirurak Jai Batzordeko kideak doguz. Gehienok jaiak gozatu baino ez doguz egiten, baina behar eta buruko min asko dago honen guzti honen atzean.

Zenbat lagun zabilte Jai Batzordean?

Aurten hamar lagun gabiltz.

Nahiko ala gitxi?

Askok ala gitxi baino, jende barriaren beharra ikusten dogu. Barriztu egin behar da. Aurten barri bi sartu dira, baina ez da nahikoa. Baten batek hamaika urte daroaz eta nik (diño Etorrek) hamar urte, beraz, apur bat nekatuta gagoz.

Herriko taldeek parte hartzen dabe?

Batzordean gagozanon artean badago herriko taldeetako jendea, baina ez dogu taldeetako ordezkari moduan parte hartzen. Deialdia zabala egiten da eta bakoitzak bere kabuz eta pertsonalki hartzen dau parte.

Halanda be, esan beharra dago, elkarrekin egitarauaren ekitaldiren batzuk anto-

latzeko ardura bere gain hartzen dabela. Kasurako, Zorritzaketanek, Euskeraren Egunean, bertsolariak, koruak eta herri bazkaria antolatzen ditu, Kurutze taldeak dantza saioa, Pelota Elkartek pilota partiduak...

Diru aldetik, egitarauari aurre egiteko nahiko behar izango dozue... Laguntzarik jasotzen dozue? Edo nahikoa laguntzarik?

Beno, Udala ondo portatzen da horretan, diru laguntza emoten deusku eta baita giza-baliabideetan be eta hori eskertzekoa da. Guk Udalak emoten deuskunagaz ez dogu aurrekontuaren zati bat baino betetzen, bestea txosnetatik... Ezin gara kexatu, baina egia da diru gehiago hartuko bagendu, gehiago gastatuko gendukela. Jai hobeagoak egiten noski!

Zer deritozue jaietan jendearen parte hartzeari?

Normalean ondo, baina iaz jende aldetik ez zan horrenbeste ibili. Hori txosnetan nabaritzen da. Egia esan, herri txikietako jaiak etorkizun gaxa deukie, herri handietako konpetentzia deukie eta. Guk Lekeitio eta Galdakaogaz daukagu.

Nobedaderik aurtengo jaietan?

Ba, aurten iaz egin genduan moduan, karpa handi bat jarriko dogu Udaletxearen atzealdean eta honen inguruan zazpi txosna egongo dira. Giro polita sortzen da eta ez dago musika nahasketarik. Iazkoa ikusita, asmatu genduala esan geinke, eta errepikatuko dogu.

Egitaraua prest daukazue?

Bai, jadanik prest dago.



Andra Mari jaiak Lezaman

Irailak 6, ostirala.

Arratsaldean, txupinazoa jaiari hasiera emateko. Geroago, umeentzako panpinak, antzerkia eta pilota partiduak.

Gauean, berbera Akelarre taldearen eskutik. Atsedendian ikusizun berezia.

Irailak 7, larunbata,

Odoloste eguna eta euskara eguna.

Goizetik hasita, Zorritzetan taldeak antolatutako ekitaldiak, abesbatza, herri bazkaria, bertsolariak, herriko musikarien ekitaldia... Arratsaldean kale antzerkia.

Gauean, Doctor Deseo taldearen kontzertua.

Irailak 8, igandea.

Andra Mari eguna.

Goizez eta arratsaldez umeentzako jokoak, puzgarriak, futbolen erraldoia...

Gauean, Anje Duhalderen kontzertua.

LEJARRENE
JATETXEA



GARAIOITZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)



S.A.T. LEGY
PAVILLO, BULEBARRA 7, 48011 LEZAMA

LEZAMA
Gutierrez Auzoa, 36
48196 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17



KIMAK
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gutierrez 39 • Tel.: 94 455 50 00 • Fax: 94 455 61 77
(48196 LEZAMA (BIZKAIA))

Pablo Vallés



Derioko Gezi-Bide arku-tiroko taldeko entrenatzailea

Txikitan, telebistan indio eta bakeroen filmak ikusita piztu zitzaion Pablo Vallési arku-tiroa egiteko zaletasuna. Geroago, 23 urte zituela, bere kontura ikasteari ekin zion, baina berak dioen moduan, “norberaren kontura ikasteak eta ezjakintasunak gezi asko apurtzea dakarte”. Horregatik erabaki zuen federatzea. Hasieran kirol hau kapritxotzat hartu zuen, baina hainbat torneotan parte hartzera eroan du. Aire zabaleko modalitatean bigarren sailkatu zen.

Zaila egin zitzaizun arku-tiroa praktikatzen hastea?

Kirol honetan hasi nintzenean ez zegoen talderik. Existitzen zen gauza bakarra arku-tiroko federazioa zen. Egia esan, garai hartan arkuak palu bi baino ez ziren, ez zegoen klub bat sortzeko aukera handirik! Urteak pasa ahala, taldeak sortuz joan dira eta, dirudienez, gauzak normalduz doaz, nahiz eta kirol honi buruz ezjakintasuna handia izan.

***“Gezi Bidek
hamabigarren postua
lortu zuen estatu
mailako azkeneko
txapelketan”***

Arku-tiroaren barruan zein modalitate daude?

Neguan, urritik otsailera arte, tiro indoor delakoa praktikatzen da, hau da, 18 metroko distantziatik botatzen dira geziak. Udan, aldiz, kanpoan praktikatzen da eta distantziak aldatzeko aukera izaten da.

Hainbat torneotan hartu duzu parte, baina zelako sailkapenak lortu dituzu?

In-door izenekoan hirugarren postua lortu nuen Estatuko txapelketa baten. Kanpoan, berriz, bigarren postua. Geroago, laugarren eta bosgarren postuetara heltzea lortu nuen.

Ez da batere erraza goialdean mantentzea; gero eta gazte gehiago dago arku-tiroa praktikatzen, eta oso gogor

datoz. Gainera, urteak aurrera joan ahala, gero eta denbora gehiago dedikatzen duzu beste gauza batzuetara. Arku-tiroaz gain, badaude beste hainbat gauza...

Bilbokoa izanik, zelan zaude Derion arku-tiro klaseak ematen?

Bilbon ez dago arku-tiroa praktikatzeko instalaziorik. Gainera, 1987an, ni nagoen kluba egin zenean, Leioan egon ginen.

Garai hartan, Ondizeko probalekua uzten ziguten. Nahiz eta leku hartan ez zegoen ganoraz egoteko modurik, hainbat urte egon ginen han praktikatzen.

Geroago, Derioko zuzendaritzarekin hitzarmen bat egitea lortu genuen eta urte batetik hona, Derioko kiroldegian dago Gezi Bide taldea astero bitan entrenatzen.

*"Hasten diren guztiei
erakusten zaien
lehenengo gauza
segurtasun neurriak
dira"*

**Beraz, Gezi Bide taldeak urte bat beste-
rik ez daroa funtzionatzen...**

Pasa den urtean hasi ginen. Beraz, esan daiteke urte bat eta erdi daramagula. Gainera, Gezi Bidek hamabigarren postua lortu zuen estatu mailako azkeneko txapelketan. Ez dago batere txarto hasteko!

Zenbat kidek osatzen duzue Gezi Bide?

Gazteenak (13 urtekoak) zein zaharrenak (49 urte) kontutan izanik, 14 lagun gaude. Euretatik guztiek ez dute konpetitzen, izan ere, gazteenak teknika zehazteko entrenatzen dabilta. Nire ustez, oso garrantzitsua da gazteei konpetitzeko presarik ez sartzea. Hobe da arkuaz jaurtitzeko gozatzea, kirol honen nondik norakoak ikas ditzaten. Beti izango dute konpetitzeko denbora!

Baldintza fisiko espezifikorik behar da kirol hau praktikatzeko?

Arku-tiroa praktikatzeko ez da behar ezelako baldintza fisikorik edo adin zehatzik. Nahikoa da, gutxienez, hamar urte izatea, hau da, arku zabaltzeko besteko indarra izatea. Baldintza fisikoei dagokienez, indar handia izatea ere ez da beharrezkoa. Kontrakoa dirudien arren, kirol honetan teknika lantzea garrantzitsuagoa da indarra baino.

Kirol honen oinarria pazientzia dela esan daiteke?

Bai. Oso kirol teknikoa eta trankila da. Pazientzia asko behar da, burua lasai izatea. Kontutan izan behar da lehiaketa batean, tiro berbera ehun bider baino gehiagotan errepikatu behar dela eta guztiak ondo bota behar dituzula!

Zaila da teknika hori lortzea?

Teknika egokia lortzea pertsona bakoitzaren kualitatearen eta egoera fisikoen arabera da, eta horrek denbora eskatzen du. Teknika ikastea erraza da, perfektzionatzea da gaitzena. Kontutan izan behar da lehiaketa batean 144 tiro bota behar dituzula, eta guztiek izan behar dutela onak, ez du balio bat edo bi bakarrik ondo egiteak.

Punteria izan behar da?

Ez bereziki. Egin behar den gauza bakarra da beti teknika berbera eta botatzeko era berbera mantentzea da. Arkua



zabaltzen duzun bakoitzean kontutan izan behar duzu, nahiz eta 10era apuntatu, ez bazaude leku eta posizio egokian jarrita, azkenean ez diozula diana joko.

*"Teknika egokia lortzea
pertsona bakoitzaren
kualitatearen eta
egoera fisikoen
araberakoa da, eta
horrek denbora
eskatzen du"*

Diru asko balio du ekipoak?

Zein ekipo erosten den. Profesionalek erabiltzen dituztenak nahiko garestiak dira, baina beste kirol batzuekin konparatuz gero, ez da hainbesterako. Aurrera begira, ekipoa inbertsioztat ikus daiteke, urte askotarako da eta. Ez da beharrezkoa ekipo olinpiko bat erostea. Jende askok ondo pasatzeko baino ez du praktikatzen kirol hau, eta nahikoa da ekipo arrunt bat. Eskia garestiagoa da, ez dituzu eskia bakarrik erosi behar, baita jantzia, eskia-tzeko lekura joan, igogailua...

Kirol guztietan esaten da praktikatzen ikasten dela, baina arku-tiroaren kasuan, ezin izango duzue edozein lekutan praktikatu...

Euskal Herrian oso zaila da praktikatzeko leku egokia aurkitzen. Batez ere, orografia aldapatsuagatik. Lautada gutxi dago...

Edozein lekutan praktika daiteke?

Ez, baimendutako lekua izan behar du. Kontutan izan behar da arku-tiroa kirol bat dela, baina arku, izan, arma bat dela. Geziek ez daukate ehizan erabiltzen diren hortzak, baina ebakitzeko gaitasuna dute, eta inori eskapatuz gero...

Izan duzue ezustekorik noizbait?

Zorionez, ez dugu inoiz ezbeharrik izan. Oso arraroa da horrelakoak gertatzea, segurtasun neurriak oso zorrotzak direlako. Kirol honetan hasten diren guztiei erakusten zaien lehenengo gauza segurtasun neurriak dira.

Zein desberdintasun dago arku-tiroaren eta esfortzu fisiko handiagoa eskatzen duten beste kirolen artean?

Kirol hau praktikatzean esfortzu fisikoa egiten da. Erraza iruditu arren, arku zabaltzeko indar handia behar da. Konpetizioko arku bat zabaltzen duzun bakoitzean, 25 kiloko indarra egiten duzu. Lehiaketa batean 144 gezi bota behar direla kontutan izanik, entrenamenduko tiradak...egun batean milaka kiloko esfortzua egin dezakezu.

Zein adinetan heltzen da erretiratzeko momentua?

Hamar urteko gaztetxo batek zein 80 urteko pertsona batek praktika dezake. Kirol honek daukan abantaila bat horixe da; ez da korrikarik egin behar... Gorputzak irauten duen arte!

Testua eta argazkiak: Maite Aranburu

ORTUA ETA IRETARGIA

Testua: Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi)

Badauka eraginik?

Iretargiaren eragina dala eta ez dala, hainbat eritxi entzuten dira baztarretan. Nekazaritzako aditu eta nekazari askoren eritxiz, hori guztia siniskeria hutsa baino ez da, baina beste asko ez dagoz ados. Iretargiak zerikusia dauka mareatan, animalia askoren portaera zikloetan, argindar bako tokietan bizi diran emakumeen hilerokoan... Itsasoko ura mugiarazoten badau, zelan ez dau bardin egingo landareen sapa eta likidoakaz? Eragin bat dagoala onartuta, uztaren errendimendua edo kalitatea zenbateraino aldatu leikean eztabaidatu geinke. Tradizinoak diosku ortuko lan bakotxa bere momentuan egin behar dala eta hartarako iretargiaren fasea hartu behar dala kontutan.

Noiz erein, noiz aldatu?

Ikertzaile sistematiko gitxi egon dira: Kolisko eta Maria Thun, euren artean. Koliskoren eritxiz, ereiteko unerik egokiena ilbetea baino egun bi lehenago izaten da, eta txarrena, aldiz, ilberria heldu baino egun bi lehenago. Ohitura tradizionalak praktikan oinarrituta dagoz, hau da, menderik mende beharrak egiteko egunak eta laboreen emaitzak erlazionatuz, nahiz eta azalpen zientifikorik ezagutu ez.

Europako eskualde askotan goraka doazen landareak (lora edo fruiturako aprobetxetan diranak) ilgoran ereiten dira; bulboak, tuberkuluak edo sustrai jangarriak emoten dituenak ilbeheran ereiten dira.

Gure artean zabalduago dagoan beste tradizio baten arabera, hazi edo fruiturako laboreak ilgoran erein eta aldatu behar dira eta landaketa guztiak ilbeheran egingo dira, batez be lur azpiko ortuariak. Egurra edo kanaberak be ilbeheran mozten dira.

Nekazaritza Biodinamikoak garrantzi handia emoten deutso iretargiari, baina ez ohiko faseen zikloari, gorantz-beheranzko zikloari baizik.



Iretargiak eragin handia dauka ortuarengan

Norantz doa iretargia gaur?

Fasea, zeru garbiagaz bertan jakingo dugu, baina beheranzkoa edo goranzkoa dan jakiteko egun bitan begiratu beharko dogu. Badagoz iretargi egutegiak, eta informazio hau errezago lortu lei eurretan.

Aurten, abuztuaren 6tik dabil beherantz, eta 19an hasiko da gorantz. Beheranzkoa irailaren 2an hasiko da barriro...

Amaitzeko aholkua

Iretargiari kasu gehiegi ez egin. Behintzat, ez ahaztu oso garrantzitsua dala lantzeko momentuan lurra aro onean egotea. Indabak ereiteko edo kipulak batzeko, lurra bustia ez egoteak edo euririk ez botateak garrantzi handiagoa dauke iretargiak baino.

Batzuei pasa jake: ereiteko iretargiari itxaron, bitartean euri zaparradea bota, eta azkenean berandu eta txarto ereitea. Beraz, iretargiari adi bai, baina batez be eguzkiari, euriari eta lurrari.

Iretargiaren gorantz-beheranzko zikloa

Iretargiaren ziklorik ezagun eta ikusgarriena lau faseena da. Hareen iraupena 29 egun, 12 ordu eta hiru laurdenekoa da.

Badago beste ziklo bat: **gorantz-beheranzkoa**. Egun batetik bestera, ordu bardinean iretargiak zeruan zein toki daukan begiratzen badogu, konturatuko gara haren altueria aldatzen doala. Eguzkia lantxi, iretargiak zeruan egiten dauan ibilbidea arkua da, batzuetan altuagoa, beste batzuetan beheragoa. Igotzen dauenean, iretargi goranzkoa dala esaten dogu; jasten danean, barriz, iretargi beheranzkoa. Iretargiaren ziklo hau 27 egun eta 7 ordu eta hiru laurdenekoa da. Beraz, faseak ez dauka zerikusirik.

Nekazari biodinamikoen arabera, **iretargi goranzkoagaz** batera, landareen sapa (sabia) gorantz doa nagusiki, eta goiko atalen jardueria handitzen da. Iretargi beheranzkoagaz likido bejetalak behera doaz eta jardueria sustraietara doa. Hori dala eta, lehenengo epea egokia da ereiteko, fruta arbolak txertatzeko edo ezitzeko, baita fruituak zein haziak jasoteko be. Bestea, barriz, sasoi ona da inautetako, egurra mozteko, landatzeko edo ortuariak aldatzeko.

Beheranzko iretargiaren eraginari eskerrak, sustraitze ona lortzen da, eta sasoi honetan ateratako patatak eta kipulak oso ondo kontserbetan ei dira.

Batzuek esaten dabe euskerazko "ilgora" eta "ilbehera" berben antxinako esangurea ez zala gaur egungoa.

Orain, fase bisualak adierazten ditue, baina beharbada goranzko eta beheranzko iretargi adierazoteko erabiltzen ziran. Beharbada, geure aurrekoak baekien iretargiaren portaera hau faseetako zikloa baino eragin haundiagokoa zala.



Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratu



SOGECAR

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

Tratamendu Ierroak

- Erabilitako olioak
- Agortutako taladrinak
- Disolbatzalleak
- Automozio

hondakinen kudeaketa osoa



Jesús Enrique López Hidalgo
Odontólogo

Dr. D. Manuel Serra Cabrera
Ortodontia

Residencia de la Salud - 191001 Zamudio
Teléfono: 944 522 619 - 944 522 619
www.zainduz.com

Internet Relay Chat (IRC, CHAT)

Testua: Alberto Legarreta

Askotan entzuten dogu bikote bat Interneteko chat batean alkar ezagutu eta ezkondu egin dala. Jende askok erabilten dau IRC (normalean chat geituten da, baina bardina da) jendea ezagutzeko, urrun dagoen bategaz egoteko, fitxategiak alkarri tuketako eta beste hainbat gauzatarako. Orain ikusiko dogu, beraz, zer dan, zelan erabilten dan eta zelango arriskuak daukazan.

Zer da IRC?

IRC idatzizko alkarrizketa sistema bat da, Interneten asko erabilten dana (chat deritxo jende guztiak). Sistema honez baliatuta, jendea zerbitzari batera konektatzen da. Kanal edo getetan (rooms) antolatuta dago eta gela bakotxean gai ezberdin bati buruz egiten da berba.

Kanal bakotxean teklatura erabiliz egin daiteke berba, jendeak esan gura dauena idazten dau. Konektatuta dagoen jende guztiak berehala ikusten dau besteak idatzi dabena, eta alkarrizketan hartu leike parte.

Fitxategiak eta informazioa be alkarregaz trukatu leikez.

Web Helbide Interesgarriak.

Programak:

<http://tuacows.arrakis.es/circ95.html>
Laguntasuna eta informazioa:
<http://www.ciudadfutura.com/irc/>
<http://www.sindominio.net/ayuda/irc.shtml>
<http://www.lapasion.org/manuales/irc.phtml>

Beti dago aukera bilatzaila bat erabiltzeko. Onena hau da:

<http://www.google.com/>

Zelan erabilten da?

Lehenengo eta behin, Interneteko loturea euki behar da; zenbat eta hobeagoa izan, hainbat hobeto. Ordenagailuan IRC programea instalatu behar da. Zerbitzari bat aukeratu behar da (asko dagoz eta gai ezberdinekoak), bakotxarentzat interesgarriena dana. Programea konfiguratu egin behar da zerbitzarian sartzeko. Normalean, lehelengo alta emon beharra dago, eta orduan pasahitza hartuko da.

Laguntasuna eta informazioa Interneten dago guztien eskura. IRC programea eta zerbitzarian alta emotea doakoa izaten da. Gehien erabilten dan programea IRC izaten da.

IRCren arriskuak.

IRCK aukera asko daukatz erabilteko, fitxategiak aldatu eta jaitxi egiten dira eta jende asko konektatzen da aldi berean gauzak alkarri truketako edo, beste barik, berba egiteko. Hainbeste gauza egin lei... Halan be, segurtasun arduradunak pentsetan dabe birus iturri bat dala, eta enpresa gehienetan debekatuta dago.

Hacker-ak, kracker-ak eta birus sortzailak chat-a erabilten dabe euren gauzak zabaltzeko. Zerbitzu bezala ez da segurua eta IRC programak akats asko daukatz.

Aholku batzuk, chat-a erabilten bada:

- Programearen azken bertsinoa eukitea.
- Jatsitako fitxategiak kontuz ibilitea.
- Antibirusaren azken bertsinoa aktibo eukitea.
- Ez fidatutea, honez baliatzen dan jende asko dago eta.



SUINOR COMPUTER S.L.
Torrelarragiti Industrialdea-3 blokea-3 nabes-ZAMUDIO (Bizkaia)

BARAKALDO INFORMATIKA
Miranda Elorbidia 3
48902 BARAKALDO-BIZKAIA
Telefonoa: 94 4781643

LEIOA INFORMATIKA
Iparragire Elorbidia 56
48940 LEIOA-BIZKAIA
Telefonoa: 94 4804638
Faxa: 94 4807145

e-mail: rooco@arrakis.es

HACKERS
CIBER

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AR
- WEB ORRIALDEAK

Mikel Zabate, 3 Ikonreko Aurrekari Sondaia
Telefonoa: 94 453 75 70

VIDEO-CLUB EL TRASGU

- DVD
- VHS
- PLAY STATION
- JOKUAK
- OPARI SALMENTAK

Iturrigane, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDAIA

Maríasun Abona, sendakuntzaren boterea bere eskuetan

Testua: Maite Aranburu



Zamudioztar honek bizitza osoa pasa du sendaketa eta medikuntza alternatiboari dedikatuta.

Zelan piztu zitzaizun gai esoterikoetarako zaletasuna?

Gertatzen zitzaidanagatik, eta telepatiari, intuizioari eta somaketari azalpena aurkitu nahian. Gai horiei buruzko liburuak irakurtzen nituen, zer gertatzen zitzaidan ulertzeko. Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta gehiago gura nuen jakin. Ezagutza handiagoa izateko eta neure burua ezagutzeko bide bezala.

Noiztik dituzu pertzepzio horiek?

Umetatik. Zamudioko baserri batean jaiotakoa izanda eta naturarekin harreman zuzena edukita, unibertsoko gauza miragarriak ulertzea errazagoa dela pentsatzen dut. Animaliei, zuhaitzei, landareei eta pertsoniei begiratuta asko ikasten dut. Hazi bakoitzean IZATE osoa biltzen delako eta fruitu berean berriro hazia aurkitzen delako magia. Eta zelan jartzen garen harremanetan

inguruarekin eta besteekin, Sortzailearekiko eta Ama Lurrarekiko lotura gogoratuz.

Uste duzu zentzumen hori zeure bizitzarako onuragarria dela?

Nire bilakaera pertsonalerako bai, izan ere, gutariko bakoitza bere pentsamendu, ekintza, intentzio eta emozioen arduraduna bada eta amesten baditugu, laguntasuna eskaintzen dugu mundua sendatzeko. Geure buruarekin hasi behar dugu.

*“Gero eta jende
gehiagori pizten zaio
gai hauetarako interesa,
kontuen aurrean
erantzun bila
doazenean”*

Jendeak ezezaguna denari beldurra edo errespetua dio?

Normalean bai, ezjakintasunagatik. Ezezaguna denak beldurra ematen digu. Ezagutzen dugunean beldurra joan egiten da. Gero eta jende gehiagori pizten zaio gai hauetarako interesa, euren bizitzan agertzen diren kontuen aurrean erantzun bila doazenean. Gaixotasun berriak agertzen dira egunero; batzuk beldurraren, estresaren, sineskeria zaharren edo heziketa patroiarren ondorio dira.

Nire ikuspuntutik, osasuna osotasunarekin armonian egotea da. Mina, gaixotasuna edo istripua zer edo zer zuzen egiten ez gabiltzan seinale da. Edozein momentutan jakin dezakegu bizitzak dakarkigun mezua; zein sinesmen edo onartu gabeko iraganaldiko eta orainaldiko zein bizipenek blokeatzen edo desitxuratzen duten geure barruko armonia.

Gaixorik dagoen gorputz-atalak erakusten digu bizitzarekiko zein portae-
rak eroaten gaituen gaixotasun hori soma-
tizatzera. Bizitzaren aurrean dugun jarrera
da gauza guztien gakoa. Itxikeria espiritua-
lak galarazten digu biziaren mezuak
entzutea, horrexegatik agertzen dira
gorputzeko eta buruko gaixotasunak.

Inoiz beldurrik izan duzu hauteman duzunagatik?

Bai, jakina. Ez dut gustukoa desatsegi-
na dena edo gaixotasunak edo arazoak
ikustea. Denboraren poderioz, neu presta-
tzeko seinaleak zirela konturatu nintzen.
Momentua heltzean gertatutakoaren
aurrean nire jarrera desberdina zen eta
nire erreakzioa kontziente eta lasaia zen.
Existitzen den guztia beharrezkoa dela
konturatu behar dugu: gaixotasuna, gerra,
heriotza...

Azkenean ohitu egiten zara?

Gakoa zoriontsu izatea da, bizitza erra-
za ez den arren, eragozpentzat jotzen
genuena opari legez onartu behar dugu,
baita daukaguna eskertu ere. Batzuetan
tratatzeko ari naizena laguna edo familiakoa
denean, konturatu barik, lar sartzen naiz
eta txarto pasatzen dut, baina badakit nire-
ztat ere ikasbideak direna.

Jendeari laguntzeko modu bat da?

Beste batzuk ezagutzen ditugunean
eta harremanak egiten ditugunean, zerbai-
tegiatik izaten da beti.

Kasualitatea ez da existitzen, kausalita-
tea baino. Zerbait ikasi eta aldi berean ira-
katsi egiten dugu; giza ispilu moduan

egiten dugu, pertsona batzuegan gusta-
tzen zaiguna eta gustuko ez duguna,
geure barruan aztertu beharko genuke.
Itzarrik, adi eta kontziente bagaude, ikasbi-
dea ikasiko dugu, osterantzean aurrerago
errepikatuko ditugu.

Medikuntza alternatiboari dagokion tek- nikarik ikasi duzu?

Reiki eta beste teknika japoniar batzuei
buruzko ikastaroak egin ditut, teknika
metamorfikoa, kristalen bidez sendatzea,
ametsak lantzeko teknikak, meditazio-erla-
xazioa eta haien osagarriak diren beste
batzuk.

Honetan guztian logikaren bila zabilta?

Logika, nire ustez, bizitzea da, senti-
tzea. Zer ikasi, huraxe egiten dut. Etxeko
hormak tituluz eta diplomaz beterik eduki-
tzeak ez du ezertarako balio, ezta burua
informazioz beteta edukita ez erabiltzeak
ere. Nahiago dut ea baliagarria den jakin.

Edozeinek erabili ahal ditu teknika hauek?

Interesa duen edozeinek, haren sines-
mena edo erlijioa edozein izanda ere. Ez
da ezagupen edo trebetasun berezirik
behar, edozein adinarekin erraza baita.

Dohain berezirik behar da?

Denok daukagu dohain edo iaiotasu-
nen bat: ile-apaintzaileak, abokatuak,
medikuak, ingeniariak, elektrikariak,
abadeak, irakasleak... Bizitza honetarako
trebetasun eta misio bat daukagu; interes-
garriena da hura aurkitzea eta apaltasunez
garatzea.



Denok daukagu dohain edo iaiotasunen bat

Erlijosoa zara, praktikantea?

Neure bizipenetako batzuk kontatu
ostean, askotan galdetzen didate hori. Ez
dut gustukoa neure buruaz berba egitea
gai batzuen inguruan, batzuek esangura
aldatzen diotelako. Jaungoikoarekin berba
egiten dudala esango dut, nagoen lekuan
egonda, bihotzari jarraituz eta nire barne-
gidariarekin kontaktua izan nahi dudane-
an. Uste dut medikuntza prebentiboa
fedearen eta zientziaren arteko lotura
dela; beraz, kreazioa sendatzeko tresna
baliagarria da.

REIKI TEKNIKA

Zer da?

Reiki-k "norberaren adimenak gidatutako bizi-
energia" adierazi nahi du japonieraz.
Seguruenik, Tibetetik datorren sendatze tekni-
ka hau esku-ezarpenaren bidez egiten da.
Mikao Usui doktoarek —monje kristaua bera—
berraurkitu zuen joan den mendearen amaie-
ran. Berak jakin nahi zuen Jesusek, Budak eta
historiako beste maisu batzuek zelan senda-
tzen zuten. Irakasbide bat sortu zuen eta bizi-
tza osoan harekin lan egin zuen zabaltzeko
asmoz. Gaur egun, seminarioetan irakasten da.
Haietan, Reiki teknikan maisua den batek bere
ezagupenak irakasten ditu maila desberdine-
tan. Nor bere buruari edo beste batzuei aplika-
tzen zaie.

Funtzionamendua

Teknika zientifiko bat garatzeko beharrezkoa
da izaki guztiek sortzen duten eremu magneti-
koa kontuan hartzea.

Gauza jakina da indar elektrikoak geure gorpu-
tza zeharkatzen duena, hura geure nerbio-sis-
tematik abiatzen dena eta geure gorputzaren
autokontrolerako indarretan parte hartzen
duena.

Gure gorputzaren atal bakoitza lotuta dago
nerbio sistemarekin. Burmuinean sortzen den

sistema honetatik gorputz aktibitatea kontrola-
tzen duten seinaleak igortzen dira.

Zelulen barruan eta euren artean korronte
elektrokoak dabilta hara eta hona, eta gizakia-
ren gorputza inguratu eta barrura sartzen diren
eremu biomagnetikoak sortzen dituzte.
Potentziarik handiena bihotzean kokatzen da.
Gorputz atal bat osasuntsu dagoenean,
frekuentzia jakin bat igortzen du, baina gaixo-
tzen bada, frekuentzia hori aldatu egiten da.
Terapeutaren egitekoa meridioak orekatzea
da; haiek, labur esanda, gizakiaren gorputza
fisikoki eta espirituali energiaren hornitzen
duten bide energetikoak dira.

Landare-espeziei guztien artean zuhaitzak dira
botere sendagarri handiena dutenak. Naturari
erreparatzen badiogu, magnetismoa bertikala
da gizakiongan eta animaliengan, hau da,
lurretik irten eta gorantz doa. Arrainen kasuan,
berriz, horizontala da, eta hegaztien
zirkularra. Zuhaitzek magnetismo bikoitza dute,
horizontala eta bertikala, eta horregatik oso
izaki bereziak dira. Ameriketako indioek "zutik
dauden neba-arrebak" esaten diete.
Gizakiontzat oina da lurrarekin lotuta dagoena.
Osasunaren oinarria honetan datza: zelulen
magnetismoak maila egokian egon behar du.

Emaitzak

Arrakasta edo porrota? Sendagilea sendatzeko
zubia edo bidea baino ez da, eta haren bidez
Sortzaileak edo Jaungoikoak egiten du bere
lana. Sendagileak, apaltasunez, bere misioa
betetzen du, norbaitek osatzeko eskatzen
duenean, batzuetan ikusezinezko faktoreak
daudela ahaztu barik.

Izaki batzuek euren gaixotasuna mantentzeko
beharrizana izaten dute maitasuna jasotzeko.
Beste batzuek maitasuna emateko, ezinduak
edo gaixoak jagon behar izaten dituzte. Dena
da perfektua unibertsoak zelan funtzionatzen
duen ulertzen badugu, existitzen den guztia
beharrezkoa dela eta guztia hortxe edozeinen
eskura dagoela ikusten badugu. Porrota izaten
da, soilik, sendagileak bere buruaz pentsatzen
duenean.

Tratamendua

Buruan, gorputz-enborrean eta gorputz-adarre-
tan aplikatzen zaio norberaren buruari edo
beste pertsona edo animaliei. Baita landareak
ere, eragin sekundariorik saihesteko. Esan
beharra dago teknika honek ez dituela ordez-
katzen ez medikua ez botikak, haiek osatu eta
indartu egiten baititu. Gorputza, burua eta
espiritua tratatzen ditugu.

LANTEGI BATUAK

Lantegi Batuak dau izena eta danok ezagutzen dogu. Zertan dabilen eta zein eskulan mota erabilten dauan be aspaldi dakigu. Baina nik neuk behintzat, egia esan, ez nekian zenbateraino heldu eitekean gure gizarteari eskaintzen deutson zerbitzua. Artikulu hau prestatzeko orduan jabetzen naz holango proiektuek daben benetako garrantziaz, baztertuta geratu daitekezan giza-taldeak itxura baten urritasunik ez daukagunon egunerokotasun laborean integratzeko ahaleginetan, beti be enpresaren ohiko helburuei uko egin barik.

Azkenengo urte eta erdian Txorierriko korridorea albo batera itzita Deriotik Sondikarako bidetik joan bazarie, Olarra lantegiaren ondoan Lantegi Batuak enpresako egoitza berria ikusiko zenuen. Aintzinako tailer baten eraikina erabarritu ostean, bere bulego nagusiak hantxe bertan kokatu dabez.

Lantegi Batuak fundazio baten eredu juridikoa jarraitzen dauan enpresa da. Bere jatorria Gorabide Elbarriak Gizarteratzeko Alkartean dago. Historia apur bat eginez, esan behar da, 60 hamarkadan ezintasun fisiko edo psikikoak eukiezan pertsonen integratzearen alde lan egiten eben talde ezbardinak egozala Bizkaian.

Urteekaz talde horreek guztiak Gorabide alkartea osatzeko batu ziran, sakabanatuta egozan tailer eta ekimenei batasun bat emonez. 80ko hamarkadaren hasieran, gutxi gorabehera, Lantegi Batuak sortu zan, Gorabide alkarreak beteten eban jarduerari enpresa izakerea emoteko eta lortutako emoitza merkaturatzeko. Azkenengoz, 1997an, Lantegi Batuak enpresak berezko izakera juridikoa lortu eban.

“Gaurko egunean, Enplegu Babestuaren esparruan industria arloan tamaina handiena daukan enpresa ekimena da Bizkaian”

Arestion aitatur badago be, eta argi lotu daiten, esan behar da Lantegi Batuak (LB) irabazi-asmorik bako enpresak dauan helburu nagusia urritasun edo ezintasunen bat daukien pertsonen integrazio laborala eta, azken baten, gizarteratzea sustatzea eta lortzea dala. Gaurko egunean, Enplegu Babestuaren esparruan industria arloan tamaina handiena daukan enpresa ekimena da Bizkaian. Azkenengo bi urteetan, 317 lanpostu sortu dauz, horretatik %96 ezinduei zuzenduta.



80ko hamarkadaren hasieran Lantegi Batuak sortu zan

Hasikera baten LBn lan egiten ebenen artean ezindu psikikoak nagusi izaten baziren be, azkenengo urteetan sentimen-urritasunak edota urritasun fisikoak daukiezanak gero eta kopuru handiagoan onartzen joan da. Zenbakien bitartez ikusteko, 1990ean LBn lau langile mota egoan, guztira 800 zirlarik: urritasunik bakoak, %10 inguru; Zereginetako Zentroan ebiltzan ezindu psikikoak, %62 inguru; sentimen-ezintasuna edo ezintasun fisikoa ebenak, %1,5 inguru, eta lantegian egozan ezindu psikikoak, %26,5 inguru. 2001ean, ordea, 1.698 langile egozan LBn, hortik 193 urritasunik bakoak, 620 inguru Zereginetako Zentroan (%36), 320 inguru ziran sentimen-urritasunen bat eukienak (%19) eta 560 inguru lantegian egozan ezindu psikikoak (%33).

Aitor Bergaretxe Lantegi Batuak enpresako Marketing eta Komunikazio arduradunaren esanetan, ezindu fisiko eta sentimenezkoek LBn daben partehartzea gero eta handiagoa da. Ez hori bakarrik, enpresa “arrunt” batera doazenak be badagoz, hau da, LBn lanerako trebakuntza bat lortu ostean beste enpresa batera

cianoplan s.a.
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87
<http://www.cianoplan.es>
global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

GIZA ETA ENPRESA EGITASMOAK ONDO BAINO HOBETO UZTARTZEKO GIDA-ARTIKULUA

"Lantegi batuak enpresan bezeroen eskari eta beharrianetara egokituz garatu eta kudeatu egiten dira ekoizpen prozesu guztiak"

doazenak. Bergaretxek azpimarratu gura izan dauanez, ezinduek ibilbide-programa bat jarraitzen dabe LBn. Hasteko, LANGAI eta INEM erakundeen zentro laguntzaile modura, langileak onartu eta orientatu egiten ditu. Gero, lanean hasi aurretik trebakuntza bat emoten jake. Pertsona bakoitzari lan bat egokitzen jake, azterketa bat egin ostean zentroko monitore eta psikologoek ustez pertsona horri ondoen jatorrena. Hortik, Zereginetako Zentrora joaten dira, lortutako gaitasuna industria eta zerbitzu arloekaz zerikusia daben jardueretan erakusteko.

Bergaretxek esan deuskunez, hau izaten da, normalean, ibilbideko urratsik gaxena, eta askok hemen emoten dau denborarik luzeena. Zereginetan trebeenak diranak Enplegu Zentro Berezira doaz, hau da, beste enpresa edo erakundeek azpikontratutako lanak beteten hasten dira, lorazaintza eta garbiketak, zuzeneko publizidadea, muntatze elektronikoak, besteak beste. Azkenengo urratsa lan-merkatu "arruntera" salto egitea baino ez da. Pauso hau emon dabenen artean esperientzia oso ona izan da, eta normaltasun ia osoz ibili dira enpresa barrian.

Lantegi batuak enpresan bezeroen eskari eta beharrianetara egokituz garatu eta kudeatu egiten dira ekoizpen prozesu guztiak, produktua muntatu eta emotea, diseinuan parte hartzea, materialen erosketa kudeatzea eta banaketa-garraioa.

Bi arlo nagusitan ibiltzen da Lantegi Batuak: Alde batetik, industria arloko azpikontratazioak beteten dauz, osagaiak eta produktua amaitua emonez muntatze mekaniko, elektroniko eta bestelakoetan, eta bestetik, zerbitzu arloan loraintza, garbiketara industrialak, GUPOST Zuzeneko publizidadea, LORELAN

Lorazaintza Zentroa, margoketa industrialak eta bideetako, urietako ondasun higigarrien mantenimendua (MARGOLAN), vending-a, gasolindegien gestioa eta zerbitzu publikoen gestioa (kioskoak, igogailuak, e.a.)

Argi dagoanez, jarduera honeetatik mozkin batzuk ataratzen dabez. Esaterako, iazko salmentak 27 milioi eurokoak izan ziran. Hareek guztiak barriro inbertidu egiten dira tailer eta zentro barriak sortzeko, eta dagozan zentroetako instalazioak eta lan-baldintzak hobetuteko.

Aitor Bergaretxek esandakoaren arabera, LBn kostu gehigarri handiak eukiten dabez beste enpresa batzuen aldean, hau da, lantokietako egokitzapen ergonomikoak, lanerako ibilbide-programak eta jarduera-aniztasunak dakarrezan gastuak, LBn dirutza zurgatzen dabena, ez dira horrenbeste agertzen beste enpresa batzuetan.

Batzuk pentsa daikete, Bizkaiko Foru Aldunditik jasotzen dauzan dirulaguntzak eta erabilitako eskulanaren ezaugarri bereziakaz, LBk kompetentzia ezleiala egiten deusela beste enpresa batzuei. Bergaretxeren ustez, hau ez dator bat benetako egoeragaz, LBk daukazan izakera bereziko kostu gehigarriei gain, Foru Aldunditik jasotakoa ia osoan itzultzen dalako zerga eta antzekoetan.

Amaitzeko, datu batzuk.

-Lantegi Batuak-ek ISO 9002 kalidade ziurtagiria lortzeko bidean dabil, EFQM Kalidade Eredu Europarrak ezarritako ibilbidea jarraituz.

-LB Euskadiko Lan Babestuen Alkarteko kidea da, Gureak (Gipuzkoa), Indesa (Araba), Usoak, Galarreta (Bizkaia) eta antzeko taldeekaz batera.

Testua: Fernando Larrondo




TRASLOCATUAK - BANATZEKO TREKADAK - BABAI FALTSUAK
DEBILAM-NEU PHOTOKELLER - INTRIMONIA/TOAK
MANPARAN-ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)

Udako/Argazkari (a) ... (a) ...
 Telefono: 94 457 14 11 - 94 457 17 95
 FAX: 94 457 14 63



GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOAK

Luis Fernando Aguirre

Makina Hedatzen, 1 - Ibañeta Nervión, 3 - 6º - 43pl. 15-7
 Telefono: 94 423 33 28 Telefono: 94 423 42 42
 Fax: 94 453 50 Fax: 94 423 61 70
 48170 ELIZKIRIA - Huelva 48101 HIL HALL



LIBRERIA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE IDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatzaileak,
 prentsa, aldizkariak, liburuak,
 papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
 48100 SONDIKA (Bizkaia)



GUTIERREZ
ORTU-ONDO, S.A.

DEBILAM-NEU PHOTOKELLER - INTRIMONIA/TOAK
 MANPARAN-ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)

Udako/Argazkari (a) ... (a) ...
 Telefono: 94 457 14 11 - 94 457 17 95
 FAX: 94 457 14 63

Sukaldaritza

ETXEKO SUKALDARITZA

LENTEJAK

Osagaiak (4 lagunentzat)

- 400 gr lenteja
- Oliba olio
- Gatza
- Berakatz
- Kinpula bat
- Porrua
- Zanahoria

Prestatzeko modua

Lentejak garbitu eta ipini beratuten bezperan. Ur beragaz egosten ipini, olio apur bat botata.

Olio, berakatz atal bi, kinpula txiki bat, zanahori bi eta porru bat, danak txiki-txiki eginda, aparte ipini eta prijidu.

Hau eginda dagoenean pasatu txinoagaz eta bota lentejari; hau 10 minutuan irikiten egon eta gero gatza bota. Irkiten euki astiro, 45 minutuan gitxi gorabehera.



Mari Tere Onaindia



BAKAILOA gainerreta berakatz kremarekin

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Bizkaitar saltsa egiteko osagaiak
- 4 bakailao xerra
- 8 piper txorizero
- 2 kipula gorri
- Berakatz
- Perrexila

Berakatz crema egiteko osagaiak

- Olio
- Berakatzak
- Arrautzak
- Perrexil txikitua

Berakatz crema prestatzeko modua

Berakatz crema maionesa bezala prestatzen da, hau da, osagaiak irabiagailu batekin nahastu, eta azkenean perrexil txikitua botatzen da.

Prestatzeko modua

Bakailaoa plantxan alde bietatik egingo da. Bizkaitar

saltsa prest dugula, bakailaoa konfitatu-ko da bertan.

Bakailaoaren gainetik berakatz crema zabaldu eta laban gainerre behar da.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Kea ur gainean"

Ibon Zaldua

Hamaika urtetik gorakoentzat. Neskato heavy musika zale baten komeriak, eta musika "zaratatsu" honegatik, gurasoekin dauazan arazoaren istorioa dogu.

"Nora noa?"

Joxemari Iturralde

Idazle tolosarraren ipuin bilduma.

Egilearen iragana eta gaur-gaurkoa eskaintzen deuskuz ipuin liburu honek. Adiskidetasuna, bidaiak, maitasuna eta umorea dira nagusi.

DISKOAK

"Aurten 6 gorakada"

Bederatzi musika talderen abesti arrakastatsuenak biltzen dira CD honetan: Asgarth, Berri Txarrak, Hirurko, Doctor Deseo, Ekon...

"The Diamond Mountain Sessions"

Sharon Sannon

Irlandarrak Arriaga antzokian apirilaren 19an eskaini euskun aurkezpen lana da hauxe, gaztetatik ikasi eta entzundako erritmo zeltiarretan oinarrituta. Kitarra, perkusio eta akordeoi musika indartsua, oinak arinka mugitzeko neurrikoa.

SOLUZIOA



DENBORA PASA

Mezu ezkutua

Joko honetan letren ordeez zeinu berezi batzuk jarri ditugu. Zeinu bakoitzari bere letra dagokio. Hasi konbinazioak egiten eta ea testua osatzen duzun. Xabier Kintanaren ipuin batetik hartua dago pasarte hau.

👉 E R R I ☹️ O P L 🙌 Z 🙌 ☠️ 🙌 G E R ❄️ U
Z E ☠️ E 🙌 ☠️ G U Z ❄️ I E ☹️ M I R E ❄️ 💧 I
Z U ❄️ E ☠️. 👉 I 💧 ❄️ I R 🙌 ❄️ 💧 U, B E R R I -
B E R R I R I ☹️, Z E ☠️ B 🙌 I ❄️ E ❄️ I ☹️ E ❄️ 🙌
O R 🙌 I ☠️ 👉 I ☹️ ☹️ E ☠️ 👉 U G 🙌 B E,
👉 🙌 L 🙌 ☹️ O X E 🙌 Z E ☠️ M I L ☹️ O R E ☠️
❄️ R 🙌 ☹️ ❄️ O R E 🙌.



UMOREA

ATZERAPENA

Gizon bat taberna baten sartzen da eta...

— leppeeee! Urte berri on. Urte berri on denoi.

Eta albokoak:

— Baina ze urte berri on, San Ferminetan gaude eta. Mekaguensos! Sekula ez nintzen hainbeste atzeratu!

ESAERA ZAHARRA

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

Gertatzen zaizkigun gorabehera, ezbehar, eta zailtasunen aurrean ez dugu la etsi behar adierazten du esaera honek. Beti aurrera egin behar dugula.

AGENDA

LEZAMA

Andra Mari jaia

Egitaraua 19. orrialdean

Musikaldia izango da irailaren 7an udaleko kultura aretoan goizeko hamabi eta erdietan. Zorritzketan-ek antolatuta. Emanaldian, Lezamako Musikari Gazteak, Lezamako Abesbatzak eta Larrabetzuko Kamara Orkestrak hartuko dute parte.

Herri bazkaria izango da irailaren 8an herriko frontoian, Zorritzketan-ek antolatuta.

Lezamako udalak **ikastaroak** antolatu ditu urritik aurrera: eskulan ikastaroa, Pathwork eta bolilo ikastaroa, altzariak berriztatzea, zura lantzeko ikastaroa, aerobica, joga, areto-dantza ikastaroa (nagusi zein umeentzat) eta sukaldaritza. Izen ematea irailaren 11tik 20ra arte egin daiteke Lezamako liburutegian.

SONDIKA

Santa Kurtzeko jaia

Egitaraua 13. orrialdean

2002-2003 Udal Ikastaro eta Lantegiak.

Izen ematea irailaren 2tik 12ra, liburutegian.

Madrileko Warner Bros Park-era txangoa urriaren 5 eta 6an. Izen ematea, irailaren 2tik 12ra bitartean, liburutegian.

Internet eta Posta Elektronikoa erabiltzeko hastapen ikastaroa (nagusi-entzat), Behargintza Txorierriko antolatuta. Euskadi Informazioaren Gizartean autobusean burutuko da irailaren 14an, Larrabarrena plazan. Izen ematea liburutegian egin daiteke irailaren 2tik 11ra.

Kilometroak 2002ra joateko autobusak (urriaren 6an). Prezioa, 5 euro erroldatuentzat, eta 7,75 euro erroldatu bakoentzat. Izen ematea Gaztetxean egin daiteke irailaren 16tik 22ra.

Nafarroa Oinez 2002ra joateko autobusak (urriaren 20a). Prezioa, 5 euro erroldatuentzat eta 10,25 euro erroldatu bakoentzat. Izen ematea Gaztetxean egin daiteke irailaren 30etik urriaren 6ra.

Komunikazio Positiboa eta Autoestimua ikastaroaren 2. atala izango da urriaren 7tik abenduaren 9ra bitartean. Prezioa 15 euro. Izen ematea irailaren 2tik 12ra, udal liburutegian egin daiteke.

Famili giroan komunikazio osasuntsu eta positiboa erabiltzeko eta autoestimua eta erantzunkizuna irakasteko ikastaroa izango da urriaren 7tik abenduaren 9ra (gurasoei zuzendua). Prezioa: 28 euro. Izen ematea irailaren 2tik 12ra, udal liburutegian.

Kixka Txontxongiloak taldeak "Txerriketan berriketan" ekitaldia eskainiko du irailaren 27an arratsaldeko 17.30etan, liburutegian.

Sondikako Pilota Eskolan izena emateko epea irailaren 10etik aurrera (17.00etatik aurrera) egin daiteke udalerriko frontoian.

LOIU

Erromeria izango da abuztuaren 14an Larrakoetxeko plazan Loiuko Batzokiak antolatuta. Arratsaldeko 18.00etan txupina eta haur jolasak izango dira, eta 20.00etan, kostillada eta sardinada herrikoia.

Begoñara joateko erromesen irteera izango da irailaren 22an.

Aikor! Txorierriko euskaldun guztien aldizkaria izatea gura dogu. Horregaitik geure orriak eskini gura deusueguz zuen gutunak, albisteak eta deiak plazaratzeko. Beraz, bialdu eizuez zeuen mezuak edo gutunak. Gure helbide elektronikoa aikortxori@yahoo.es da. Telefonoa 944523447 da.



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

**ALDIZKARIAN
PUBLIZITATEA
JARRI GURA
DUENAK DEITU
BAINO EZ DU
EGIN BEHAR**

**TLFNOA: 94 452 34 47
686 58 92 38**

E-MAIL: aikortxori@yahoo.es

VASCOLAC S.L.
40170 Zamudio (BIZKAIA)
94 452 23 00 tfnua.




Bitxian batutako esneagaz egunean eguneiko GAILLA gazta fresko
ATUTXA San Jakintxoak eta kinkakak
BANANETA DENDETARA, JATETXEETARA,
TABERNETARA ETA JATOKIETARA
Hainbat euskal produktuen distribuzioa:
adonak, mitxak, konkibak, txerrikak, manbrinkak, txakurak, palak

 **BASBE s.l.**

ERAIKUNTZAK

Tel./Fax: 94 455 84 51
Zubitaldea, 15 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)




Andra Mari
 Tfno: 4558407

LARRABETZU
 BIZKAIA



LARRABETZU

MUSIKA ESKOLA

**Musikale zabalik
ikastegi homologatua**

Enbatale, 7 Behekoa

Tf. 94.455.70.66

40191.-LARRABETZU

Derion, Institutuon

- HASIERA MUSIKALA
- HISKUNTZA MUSIKALA
- KITARRA
- SOINUA
- TXOLIBISTA
- BOOLINA

- BOLONTZELOA
- KONTRABAXUA
- KANTUA
- ABESBATZA
- TXISTU
- TRUKITINA

- PIANOA
- KLARINETEA
- GEHUGARRIAE
- ARMONIA
- EGITURAK eta abar.

ikasturtearen hasieraz 2002ko irailaren 16an -3 urtefik hasita- helduentzako klaseak

IRUSTA TABERNA

EGUNFROKO MENUAK
eta GAUEZ PARRANDA

1. ARRABE 1/11
Tel. 94.455.84.77

Moro's Pub

Hornitu

mobila BBK-ko kutxazainetan



Hornitu mobila erarik erosoenean

Edozein izanik telefonia
mobileko zure operadorea,
dagoeneko, edozein
txartelekin hornitu dezakezu
zure telefonoa, erraz-erraz,
BBK-ko edozein
kutxazainetan.

bbk =